Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko maiatzaren 12a, astelehena — 87 — Lunes, a 12 de mayo de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZUMAIAKO UDALA

*Zumaiako Udaleko Udaltzain kategoriako hiru plaza, Azpeitiko Udaleko Udaltzain kategoriako plaza bat eta Getariako Udaleko Udaltzaingoko Zerbitzuko Agente plaza bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onartzea.*

2025eko martxoaren 31ko Zumaiako Udaleko Ohiko Tokiko Gobernu Batzordean ondorengo akordioa onartu zen:

*Lehena.* Zumaiako Udaleko udaltzain kategoriako hiru plaza, Zumaiako Udaleko 2024ko lan-eskaintza publikoan jasota daudenak, Azpeitiko Udaleko udaltzain kategoriako plaza bat eta Getariako Udaleko udaltzaingoko zerbitzuko agente plaza bat oposizio-lehiaketa librearen sistemaren bitartez behin betiko izaeraz betetzeko deialdia onartzea.

*Bigarrena.* Deialdi hori arautuko duten oinarriak onartzea. Oinarriak ebazpen honen eranskin gisa gehitu dira.

*Hirugarrena.* Deialdi hori eta dagozkion oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Zumaiako Udalaren iragarki taulan eta webgunean argitaratzea.

Eta horren berri ematen da dagozkion ondorioetarako. Bestetik, ebazpen honek administrazioaren bidea agortu du, eta horren aurka egiteko bi aukera ditu interesdunak; bata, berraztertze-errekurtsoa aurkeztea, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita hilabeteko epean, Zumaiako Udal honen alkatearen aurrean; bestea, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztea Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Zumaia, 2025eko apirilaren 16a.—Jarduneko alkatea (729/2025 Dekretua). (3274)

*Zumaiako Udaleko Udaltzain kategoriako hiru plaza, Azpeitiko Udaleko Udaltzain kategoriako plaza bat eta Getariako Udaleko Udaltzaingoko Zerbitzuko Agente plaza bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren oinarriak.*

*Lehenengoa. Deialdiaren xedea.*

Oinarri orokor eta espezifiko hauen xedea da Zumaiako Udaleko hiru Udaltzain Agente plaza betetzeko hautaprobak egitea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 100.1 artikuluaren babesean, Azpeitiko Udaleko Udaltzain Agente plaza bat eta Getariako Udaleko Udaltzaingoko Zerbitzuko Agente plaza bat betetzeko, toki-erakunde horiek deialdia egin duen administrazioarekin egindako kudeaketa-gomendioen arabera, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan oinarrituta.

Deitutako plazen kopurua handitu ahal izango da, Zumaia, Azpeiti eta Getariako Udaletako udaltzaingoaren kategoriako lanpostu hutsen arabera, edozein arrazoirengatik, hautaketa-proze-

## AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

*Aprobar la convocatoria de concurso-oposición para la provisión de tres plazas de la categoría de Agente de la Policía Local del Ayuntamiento de Zumaia, una plaza de la categoría de Agente de la Policía Local del Ayuntamiento de Azpeitia y una plaza de Agente del Servicio de la Policía Local del Ayuntamiento de Getaria.*

El 31 de marzo de 2025 en la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Zumaia se acordó lo siguiente:

*Primero.* Aprobar la convocatoria de concurso-oposición para la provisión de tres plazas de la categoría de Agente de la Policía Local del Ayuntamiento de Zumaia, una plaza de la categoría de Agente de la Policía Local del Ayuntamiento de Azpeitia y una plaza de Agente del Servicio de la Policía Local del Ayuntamiento de Getaria.

*Segundo.* Aprobar las bases que regirán dicha convocatoria. Las bases se adjuntan como anexo a la presente Resolución.

*Tercero.* Publicar dicha convocatoria y las bases correspondientes en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios y página web del Ayuntamiento de Zumaia.

Lo que se publica para general conocimiento y para que surta los efectos oportunos. Contra la presente Resolución, que pone fin a la vía administrativa, puede interponer alternativamente o recurso de reposición potestativo, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, ante el Alcalde de este Ayuntamiento de Zumaia, o recurso contencioso-administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación.

Zumaia, a 16 de abril de 2025.—El teniente de alcalde (Decreto 729/2025). (3274)

*Bases de la convocatoria de concurso-oposición para la provisión de tres plazas de la categoría de Agente de la Policía Local del Ayuntamiento de Zumaia, una plaza de la categoría de Agente de la Policía Local del Ayuntamiento de Azpeitia y una plaza de Agente del Servicio de la Policía Local del Ayuntamiento de Getaria.*

*Primera. Objeto de la convocatoria.*

Las presentes bases generales y específicas tienen por objeto, al amparo del artículo 100.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, la realización de pruebas selectivas para la provisión de tres plazas de Agente de la Policía Local del Ayuntamiento de Zumaia, una plaza de Agente de la Policía Local del Ayuntamiento de Azpeitia y una plaza de Agente del Servicio de la Policía Local del Ayuntamiento de Getaria, en virtud de las encomiendas de gestión realizadas por dichas entidades locales con la Administración convocante, con base en el artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

El número de plazas convocadas podrá incrementarse en función de las vacantes de la categoría de Policía Local de los Ayuntamientos de Zumaia, Azpeitia y Getaria, por cualquier mo-

EK\CV GAO-I-2025-03274

suak irauten duen bitartean. Zabaltze hori dagokion erakundeko organo eskudunak eskatuta egingo da, eta hogeigarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko da, Zumaiako Udaleko Alkate-Udalburuaren ebazpen bidez.

Balizko zabaltze horiek oinarri hauen arabera arautuko dira, eta, nolanahi ere, oposizio-lehiaketa gainditu duten pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratzeko izapidearen aurretik onartu beharko dira.

Deitutako plazak:

a) Zumaia:

— Plaza kopurua: 3.

— Kidegoa: Udaltzaingoa.

— Kategoria: Agentea.

— Mota: Funtzionarioa.

— Eskala: Administrazio Berezia.

— Azpieskala: Zerbitzu Berezia.

— Azpitaldea: C1.

— Lanpostu-osagarri maila: 16.

— Berariazko osagarria: 19.051,86 €.

— Hizkuntza-eskakizuna: 2, igarotako derrigortasun datarekin.

— Gidabaimenak: B eta A2. A2 gidabaimenaren kasuan, beranduenez, egiaztatu beharko da, behin praktiketako funtzionario izendatu ondoren, Akademian egin behar den prestakuntza ikastaroa amaitu aurretik.

— Baldintzak:

Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 66. artikuluaren arabera, emakumeekin bete beharko diren plazak % 40 izango dira, Zumaiako Udaltzaingoan emakumeen presentzia sustatze aldera.

b) Azpeitia:

— Plaza kopurua: 1.

— Kidegoa: Udaltzaingoa.

— Kategoria: Agentea.

— Mota: Funtzionarioa.

— Eskala: Administrazio Berezia.

— Azpieskala: Zerbitzu Berezia.

— Azpitaldea: C1.

— Lanpostu-osagarri maila: 18.

— Berariazko osagarria: 12.786,34 €.

— Hizkuntza-eskakizuna: 2, igarotako derrigortasun datarekin.

— Gidabaimena: B.

— Baldintzak:

Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 66. artikuluaren arabera, emakumeekin bete beharko diren plazak % 40 izango dira, Azpeitiko Udaltzaingoan emakumeen presentzia sustatze aldera.

c) Getaria:

— Plaza kopurua: 1.

— Kidegoa: Udaltzaingoa.

— Kategoria: Zerbitzuko Agentea.

— Mota: Funtzionarioa.

— Eskala: Administrazio Berezia.

— Azpieskala: Zerbitzu Berezia.

tivo, mientras dure el proceso selectivo. Dicha ampliación se realizará a instancia del órgano competente de la entidad correspondiente y se publicará en la forma prevista en la base vigésima, mediante resolución del Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zumaia.

Estas eventuales ampliaciones se regirán por las presentes bases y, en todo caso, deberán aprobarse con carácter previo al trámite de publicación de la relación provisional de personas que hayan superado el concurso-oposición.

Plazas convocadas:

a) Zumaia:

— Número de plazas: 3.

— Cuerpo: Policía Local.

— Categoría: Agente.

— Tipo: Funcionario/a.

— Escala: Administración Especial.

— Subescala: Servicios Especiales.

— Subgrupo: C1.

— Nivel de complemento de destino: 16.

— Complemento específico: 19.051,86 €.

— Perfil lingüístico: 2, con fecha de preceptividad vencida.

— Permisos de conducción: B y A2. En el caso del permiso de conducción de la clase A2, deberá acreditarse, a más tardar, una vez nombrado funcionario o funcionaria de prácticas, antes de finalizar el curso de formación en la Academia.

— Requisitos:

De acuerdo con el artículo 66 del Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco, las plazas que deberán cubrirse con mujeres serán el 40 % a fin de promover la presencia de mujeres en la Policía Local de Zumaia.

b) Azpeitia:

— Número de plazas: 1.

— Cuerpo: Policía Local.

— Categoría: Agente.

— Tipo: Funcionario/a.

— Escala: Administración Especial.

— Subescala: Servicios Especiales.

— Subgrupo: C1.

— Nivel de complemento de destino: 18.

— Complemento específico: 12.786,34 €.

— Perfil lingüístico: 2, con fecha de preceptividad vencida.

— Carnet de conducir: B.

— Requisitos:

De acuerdo con el artículo 66 del Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco, las plazas que deberán cubrirse con mujeres serán el 40 % a fin de promover la presencia de mujeres en la Policía Local de Azpeitia.

c) Getaria:

— Número de plazas: 1.

— Cuerpo: Policía Local.

— Categoría: Agente de Servicio.

— Tipo: Funcionario/a.

— Escala: Administración Especial.

— Subescala: Servicios Especiales.

EK\CV GAO-I-2025-03274

— Azpitaldea: C1.

— Lanpostu-osagarri maila: 16.

— Berariazko osagarria: 15.648,48 €.

— Hizkuntza-eskakizuna: 2, igarotako derrigortasun datarekin.

— Gidabaimena: B.

*Bigarrena. Parte hartzeko baldintzak.*

prozesuan parte hartu nahi duten pertsonek, onartuak izateko, baldintza hauek guztiak bete beharko dituzte:

a) Aurretiazko eskaera egitea eta Zumaiako Udalean langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik indarrean dagoen tasa ordaindu izana.

Tasa ordaintzeko modua:

* Internet bidez, Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidearen bidez; gune horretara automatikoki joango da www.zumaia.eus webgunean izena emateko eskabidea bete ondoren.

* Ordainketa-gutuna Zumaiako Udalaren bulegoetan eskuratu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidean (https://euskadi.eus/nireordainketa) edota honako banketxe hauetako edozein sukurtsaletara joanda ordaindu beharko da; kutxazain automatikoetan ere ordaindu ahal izango da, baldin barra-kodearen irakurgailu optikoa badute edo datuak eskuz sartzeko aukera ematen badute.

— Banco Santander.

— BBVA

— Caixabank.

— Kutxabank.

— Laboral Kutxa.

— Rural Kutxa.

— Sabadell Guipuzcoano.

— Honako hauek tasa ordaintzetik salbuetsita daude (Zerga, administrazio eta gizarte arloko neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legea, 18. artikulua): % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenak.

Eskabideak aurkezteko epean tasa ordaintzen ez bada edo osorik ordaintzen ez bada, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

b) Espainiako estatuko nazionalitatea izatea.

c) 18 urte izatea eta 38 urte bete ez izana; muga hori Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetan egindako zerbitzuekin konpentsatu ahal izango da.

d) Gutxienez, Batxilergo edo teknikari titulua edo hori lortzeko eskubideak ordaindu izana.

e) Azaroaren 22ko 142/2022 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautespen eta Prestakuntza Araudia onartzen duen Dekretua laugarrenez aldatzen duenean, jasotako bazterketa medikoen taulan sartuta ez egotea.

f) Doluzko delituengatik kondenatua ez izatea, eta herri-administrazio baten zerbitzutik banandua ez egotea, eta funtzio publikoak betetzeko desgaituta edo etenda ez egotea, hargatik eragotzi gabe birgaikuntzaren onura aplikatzea. arau penal eta administratiboekin bat etorriz.

g) Eskatzaileak armak eramateko eta, hala badagokio, erabiltzeko konpromisoa hartzea.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoren edo Udaltzaingo Zerbitzuren batean sartzeko hautaketa-prozesutik kanpo ez egotea falta astunagatik edo oso astunagatik, salbu eta preskripzio-epearen baliokidea den aldia igaro bada, bazter-tzeko adierazpenaren datatik kontatzen hasita.

— Subgrupo: C1.

— Nivel de complemento de destino: 16.

— Complemento específico: 15.648,48 €.

— Perfil lingüístico: 2, con fecha de preceptividad vencida.

— Carnet de conducir: B.

*Segunda. Requisitos de participación.*

Las personas que deseen participar en el proceso para ser admitidas deberán reunir todos y cada uno de los siguientes requisitos:

a) Solicitud previa y abono de la tasa vigente para la inscripción en las convocatorias de selección de personal del Ayuntamiento de Zumaia.

Forma de pago de la tasa:

* A través de Internet, a través de la pasarela de pagos del Gobierno Vasco, a la que se accederá de forma automática una vez cumplimentada la solicitud de inscripción en www.zumaia.eus.

* Una vez recibida la carta de pago en las oficinas del Ayuntamiento de Zumaia, esta deberá ser abonada en la pasarela de pagos del Gobierno Vasco (https://euskadi.eus/mipago) o en cualquiera de las sucursales de las siguientes entidades bancarias, pudiendo ser abonada en cajeros automáticos que dispongan de lector óptico de código de barras o que permitan la introducción manual de datos.

— Banco Santander.

— BBVA

— Caixabank.

— Kutxabank.

— Laboral Kutxa.

— Rural Kutxa.

— Sabadell Guipuzcoano.

— Están exentos/as del pago de la tasa (artículo 18 de la Ley 66/1997, de 30 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y del Orden Social): las personas con una discapacidad igual o superior al 33 %.

La falta de pago de la tasa o su abono en su totalidad dentro del plazo de presentación de solicitudes supondrá la exclusión del proceso selectivo.

b) Tener la nacionalidad española.

c) Tener 18 años y no haber cumplido 38, límite que podrá ser compensado con servicios prestados en Cuerpos de Policía del País Vasco.

d) Como mínimo, título de Bachiller o de Técnico/a o haber abonado los derechos para su obtención.

e) No estar incluido/a en el cuadro de exclusiones médicas recogido en el Decreto 142/2022, de 22 de noviembre, de cuarta modificación del Decreto por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco.

f) No haber sido condenado/a por delitos dolosos, ni separado/a del servicio de una Administración Pública, ni hallarse inhabilitado/a o suspendido/a para el ejercicio de funciones públicas, sin perjuicio de la aplicación del beneficio de la rehabilitación, de acuerdo con las normas penales y administrativas.

g) Compromiso de la persona solicitante de portar y, en su caso, utilizar las armas.

h) No haber sido excluido/a del proceso selectivo para el ingreso en alguno de los Cuerpos de Policía del País Vasco o Servicios de Policía local por falta grave o muy grave, salvo que hubiera transcurrido un período de tiempo equivalente al plazo de prescripción a contar desde la fecha de la declaración de exclusión.

EK\CV GAO-I-2025-03274

i) Praktiketako funtzionarioa izendatua izan den egunean indarrean dagoen araudiaren arabera, legezko ezgaitasun edo bateraezintasun kausarik ez izatea.

j) Honako gidabaimen hauek izatea:

— Deialdiko plaza guztietarako: B motako baimena, turismoetarako, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean indarrean.

— Zumaiaren kasuan, aurrekoari ondorengoa gehitzen zaio:

A2 motako baimena, beranduenez egiaztatu beharko dena, behin praktiketako funtzionario izendatuta, Akademian egiten den ikastaroa bukatu aurretik.

Era berean, arestian adierazitako baimenak indarrean egon beharko dira eskatzen direnetik, gidatzeko eskubidea eten, erretiratu edo kendu gabe, administratiboak zein judizialak izan, eta esleitutako puntu guztiak galdu gabe.

*Hirugarrena. Eskabideak aurkeztea: aurkezpena eta epea.*

1. Onartzeko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuan parte hartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

1.— Dagokion eskabidea betetzea.

2.— Epearen barruan aurkeztea eta

3.— Zumaiako Udaleko langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasa ordaintzea.

Onartua izateko nahikoa izango da eskabidean nork bere erantzukizunpean adieraztea eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla, betiere aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunean.

Halaber, aurkezteko epea amaitzen denean, eskatutako baldintza guztiak beteta eduki beharko dira, oinarrietan euskararen ezagutzari buruz aurreikusitakoa izan ezik; azken kasu horretan, hala badagokio, hautaketa-prozesuko oposizio fasean aukera izango baita eskatzen den euskara-maila egiaztatzeko.

2. Eskabideak egoitza elektronikoko deialdiaren fitxan argitaratutako inprimakiaren arabera egokituko dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta tasa ordainduta formalizatu beharko dira, salbuespenak salbuespen, Zumaiako Udaleko ordenantza fiskaletan arautakoarekin bat.

Aurrekoaz gain, eredu ofizial eta normalizatu bat ere jarriko da eskura; Udalaren webgunean (lan-eskaintza publikoan) egongo da eskuragarri, eskabideak aurkezteko epea irekitzen den unean.

Formulario elektronikoaren berdina izango da paperezko formularioa, eta edukiak eskatzen duen zehaztasunez bete beharko da.

*Oharra:* Erabiltzen den formularioan merezimenduak ere alegatu beharko dira, baina kontuan izan beharko da prozesu honetarako aplikazioaren autobaremazio funtzioa desgaitua egongo dela eta ondorioz, fase honetan, aplikazioak, merezimenduen balorazioaren atalean 0 puntu esleituko dituela.

Parte hartzeko eskabidearekin ez da aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak eta alegatutako merezimenduak betetzen direla egiaztatzen duen inolako agiririk. Nahikoa izango da hautagaiek, beren erantzukizunpean, adieraztea parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea amaitzen denean prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela. hizkuntza-eskakizuna izan ezik.

Eskatutako hizkuntza-eskakizunari dagokionez, izangaiek adierazi beharko dute egiaztatuta duten ala ez. Egiaztatuta ez badute, hautaketa-prozesuan egiaztatu beharko dute, dagokion probaren bidez.

i) No estar incurso/a en causa legal de incapacidad o incompatibilidad conforme a la normativa vigente en la fecha del nombramiento como funcionario o funcionaria en prácticas.

j) Estar en posesión de los siguientes permisos de conducción:

— Para todas las plazas convocadas: permiso de turismo de la clase B, vigente el último día del plazo de presentación de solicitudes.

— En el caso de Zumaia, a lo anterior se añade:

Permiso de la clase A2, que deberá acreditarse a más tardar, una vez nombrado funcionario en prácticas, antes de la finalización del curso que se realice en la Academia.

Asimismo, los permisos anteriormente citados deberán estar en vigor desde el momento de su solicitud, sin que se produzca suspensión, retirada o privación del derecho a conducir, ni pérdida de la totalidad de los puntos asignados, tanto administrativos como judiciales.

*Tercera. Presentación de solicitudes: presentación y plazo.*

1. Para ser admitido/a y, en su caso, participar en el proceso selectivo será necesario:

1.— Cumplimentar la solicitud correspondiente.

2.— Presentación en plazo y

3.— Pago de la tasa de inscripción en las convocatorias de selección de personal del Ayuntamiento de Zumaia.

Para la admisión será suficiente con que en la solicitud se manifiesten, bajo su responsabilidad, que se reúnen todos y cada uno de los requisitos exigidos, en la fecha de finalización del plazo establecido para su presentación.

Asimismo, a la fecha de finalización del plazo de presentación, deberán cumplirse todos los requisitos exigidos, salvo lo previsto en las bases sobre el conocimiento de euskera, en cuyo caso, se podrá acreditar el nivel de euskera exigido en la fase de oposición del proceso selectivo.

2. Las solicitudes se ajustarán al formulario publicado en la ficha de convocatoria de la sede electrónica, según lo dispuesto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015, y deberán formalizarse mediante el pago de la tasa, salvo excepciones, de acuerdo con lo regulado en las ordenanzas fiscales del Ayuntamiento de Zumaia.

Además de lo anterior, se pondrá a disposición un modelo oficial y normalizado que estará disponible en la página web del Ayuntamiento (OPE) en el momento de la apertura del plazo de presentación de solicitudes.

El formulario en papel será el mismo que el formulario electrónico y deberá ser cumplimentado con la precisión requerida por su contenido.

*Nota:* En el formulario que se utilice también habrá que alegar los méritos, pero habrá que tener en cuenta que la función de autobaremación de la aplicación para este proceso estará deshabilitada y en consecuencia, en esta fase, la aplicación asignará 0 puntos en el apartado de valoración de méritos.

Con la solicitud de participación no será necesario presentar documentación alguna que acredite el cumplimiento de los requisitos de participación y de los méritos alegados. Bastará con que las personas candidatas manifiesten, bajo su responsabilidad, que reúnen todos y cada uno de los requisitos exigidos para participar en el proceso a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes de participación.

Respecto al perfil linguístico requerido, las personas aspirantes deberán manifestar si lo tienen acreditado o no. En el caso de que no lo tengan acreditado, deberán acreditarlo en el proceso selectivo mediante la oportuna prueba.

EK\CV GAO-I-2025-03274

Oinarrietan zehaztutakoaren arabera, epaimahai kalifikatzaileak berariaz eskatutako izangaiek instantzian alegatutako merezimenduak egiaztatu beharko dituzte une egokian.

Oinarri hauen ondorioetarako, eta hautagaiak parte hartzeko baldintzak betetzen dituela eta bertan alegatutako merezimenduak dituela parte hartzeko eskabidean adierazita, erantzukizunpeko adierazpentzat hartuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 64. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eskabidearekin batera, Zumaiako Udalean langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasa ordaindu izanaren ziurtagiria baino ez da aurkeztuko.

Euskararen informazioari buruzko eskariaren epigrafean, hautagaiek, eskatzen den hizkuntza-eskakizuna duten ala ez adierazi beharko dute nahitaez. Halaber, 19/2024 Dekretuak, otsailaren 22koak, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoak, 39. artikuluan arautzen duena kontuan izanik, oposizio-faseko bigarren eta laugarren probak euskara hutsean egingo dira.

3. Eskabideak, eskatutako dokumentazioarekin batera, leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

a) Eskaera elektronikoa Zumaiako Udaleko egoitza elektronikoan: https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/CORP/LLEHautaketaProzesuakWEB/concursosAytos/081?idioma=eu.

— Aurkezpen elektronikoa aukeratuz gero, programak onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitarteko bat eduki beharko da (BakQ, DNI-e, FNMT...).

b) Aurrez aurreko eskaera:

Zumaiako Udaleko erregistro eta herritarren arretarako bulegoan, Foruen plazako 1 zenbakian. Herritarren arretarako ordutegia: 08:00-14:00.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 16.4. artikuluan xedatutako edozein tokitan ere aurkeztu ahal izango dira.

Zumaiako Udaleko Alkatetzari zuzenduko zaizkio. Antzematen diren izatezko akatsak edozein unetan zuzendu daitezke, ofizioz eta/edo interesdunak eskatuta.

Deialdiaren laburpena *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita hogei (20) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira.

Eskabidea garaiz eta behar bezala ez aurkezteak izangaia baztertzea ekarriko du.

Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikuluarekin bat etorriz, eskaera-orrietako akatsen kasuan, interesdunari errekerimendua egingo zaio iragarkiaren bidez Zumaiako Udalaren iragarkitaulan eta webgunean (www.zumaia.eus lan-eskaintza publikoaren atalean), hamar egun balioduneko epean konpon dezan dokumentazio-falta, izangaiak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorriz, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, atzera egingo duela eskaeran, horretarako ebazpena eman ondoren.

Tasa ez ordaintzea edo ordainketa osatugabea konpondu ahal izango da, soil-soilik eskatzaileak alegatutako salbuespenaren onuradun izateko baldintzak betetzeari buruz egindako akatsaren ondorio denean. Horretarako, hamar eguneko epea emango zaio pertsonari akatsa zuzentzeko.

*Laugarrena. Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.*

Tratamenduaren Arduraduna Zumaiako Udala da, hurrengo helbidearekin: Foruen plaza 1, 20750, Zumaia (Gipuzkoa). Datuak Babesteko Ordezkariaren harremanetarako datuak hauek dira: proyectos.rgpd@bilbomatica.es.

De acuerdo con lo establecido en las bases, las personas aspirantes expresamente solicitadas por el Tribunal Calificador, deberán acreditar en el momento oportuno los méritos alegados en la instancia.

A los efectos de las presentes bases, y de conformidad con lo establecido en el artículo 64 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, se entenderá por declaración responsable, la declaración de reunir los requisitos de participación y de poseer los méritos alegados en la solicitud de participación.

La solicitud se acompañará únicamente del justificante del pago de la tasa por inscripción en las convocatorias de selección de personal del Ayuntamiento de Zumaia.

En el epígrafe de la solicitud relativo a la información del euskera, las personas candidatas deberán indicar obligatoriamente si disponen o no del perfil lingüístico exigido. Asimismo, de acuerdo con el artículo 39 del Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco, las pruebas segunda y cuarta de la fase de oposición se realizarán íntegramente en euskera.

3. Las solicitudes, junto con la documentación requerida, podrán presentarse en los siguientes lugares:

a) Solicitud electrónica en la sede electrónica del Ayuntamiento de Zumaia: https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/CORP/LLEHautaketaProzesuakWEB/concursosAytos/081?idioma=es.

— Si se opta por la presentación electrónica, se deberá disponer de un medio de identificación y firma electrónica admitido por el programa (BakQ, DNI-e, FNMT...).

b) Solicitud presencial:

En la Oficina de Registro y Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Zumaia, Foruen plaza 1. Horario de atención al público de 08:00 a 14:00 horas.

También podrán presentarse en cualquiera de los lugares previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Se dirigirán a la Alcaldía del Ayuntamiento de Zumaia. Los defectos de hecho que se aprecien podrán ser subsanados en cualquier momento, de oficio o a instancia de la persona interesada.

Deberán presentarse en el plazo de veinte (20) días hábiles, contados a partir del siguiente al de la publicación del extracto de la convocatoria en el *Boletín Oficial del Estado*.

La no presentación de la solicitud en tiempo y forma supondrá la exclusión de la persona aspirante.

No obstante, de conformidad con el artículo 68 de la Ley 39/2015, en el caso de defectos en las instancias, se requerirá a la persona interesada mediante anuncio en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Zumaia y en la página web (www.zumaia.eus) para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane la falta de documentación, de acuerdo con la declaración responsable debidamente firmada por la persona candidata, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución dictada al efecto.

La falta de pago o el pago incompleto de la tasa sólo podrá ser subsanada cuando sea consecuencia del error cometido por la persona solicitante sobre el cumplimiento de los requisitos para ser beneficiaria de la exención alegada. A tal efecto, se requerirá a la persona para que, en el plazo de diez días, subsane la falta.

*Cuarta. Información básica de protección de datos.*

El Responsable del Tratamiento es el Ayuntamiento de Zumaia-Zumaiako Udala, con dirección postal Foruen plaza, 1, 20750, Zumaia (Gipuzkoa). Los datos de contacto del Delegado de Protección de Datos son los siguientes: proyectos.rgpd@bilbomatica.es.

EK\CV GAO-I-2025-03274

Tratamenduaren helburua da Udaleko langileei eta hautaketa-prozesuei buruzko informazio pertsonala kudeatzea.

Tratamenduaren oinarri juridikoa legezko betebeharren bat betetzea eta interes publikoagatik edo Tratamenduaren erantzuleari emandako botere publikoak baliatzeagatik buruturikoa da, 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5ekoan, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoan, 8.1 eta 8.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Zumaiako Udalak zure datuak jakinarazi ahal izango dizkie Zerga Administrazioari, Gizarte Segurantzari, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari, Lanbideri, IVAPi, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei, laneko arriskuen prebentzioko zerbitzuei eta sindikatuei.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurkatzeko, transferitzeko eta mugatzeko eskubideak erabiltzeko eskubidea du, bai eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan erreklamazio bat aurkezteko ere.

Datuak babesteari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsulta dezakezu gure webguneko datuak babesteari buruzko atalean: www.zumaia.eus.

Interesdunak deialdian aurreikusitako bazterketa medikoen taulara egokitzen direla egiaztatzeko, fitxategi hori legez aurreikusitako moduan tratatu eta laga ahal izango da.

Hautatu gabeko pertsonei dagozkien datuak, hautaketa-prozesu amaitu ondoren ezabatu egingo dira.

*Bosgarrena. Izangaiak onartzea.*

1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Zumaiako Udalak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren proposamena egingo du eta, hala badagokio, deialdia egin duten hiru erakundeen alkatetza-dekretuen bidez ebatziko da. Jarraian, zerrenda hogeigarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko da.

Behin-behineko zerrendan baztertutako pertsona bakoitzaren baztertzeko arrazoiak adieraziko dira eta 10 egun baliodunneko epea emango da erreklamazioak egin eta eskabideko akatsak zuzentzeko.

2. Epe barruan aurkeztutako erreklamazioak alkatetza-ebazpenen bidez onartu edo baztertuko dira. Ebazpen horien bidez, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da. Behin betiko zerrenda hogeigarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko da.

Aurreko zerrendetan, bai eta argitaratzen diren guztietan ere, parte-hartzaileen identifikazioa jasoko da, baita ausaz hautatutako Nortasun Agiriaren 4 zenbaki ere.

*Seigarrena. Hautaketa-sistema.*

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketarena izango da; sistema hori erabiliko da izangaien gaitasuna zehazteko eta haien arteko lehentasun-ordena finkatzeko.

*Zazpigarrena. Epaimahai kalifikatzailea.*

1. Oposizio-lehiaketako probak eta merezimenduak zehaztu, garatu eta ebaluatzeko eta parte-hartzaileak hautatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuan eta uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Epaimahai kalifikatzailea honako hauek osatuko dute:

1.1. Lehendakaria, Zumaiako Udalak proposatuta izendatua.

1.2. Idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

1.3. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak proposatuta izendatutako ordezkari bat.

La finalidad del tratamiento es gestionar la información personal relativa al personal empleado del Ayuntamiento y a la realización de procesos selectivos.

La base jurídica del tratamiento es el cumplimiento de una obligación legal y el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento dispuestos en los artículos 8.1 y 8.2 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

El Ayuntamiento de Zumaia podrá comunicar tus datos a la Administración Tributaria, a la Seguridad Social, al Servicio Público de Empleo Estatal, a Lanbide, al IVAP, a entidades de Previsión Social Voluntaria, a servicios de prevención de riesgos laborales, así como a los sindicatos.

Tiene derecho a ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, portabilidad y limitación, así como presentar una reclamación ante la Autoridad Vasca de Protección Datos.

Puede consultar la información adicional y detallada sobre protección de datos en el apartado de protección de datos de nuestra página web: www.zumaia.eus.

Con el fin de verificar la adecuación del interesado al cuadro de exclusiones médicas previsto en la convocatoria, dicho fichero podrá ser tratado y cedido en la forma legalmente prevista.

Los datos correspondientes a las personas no seleccionadas se borrarán una vez finalizado el proceso de selección.

*Quinta. Admisión de aspirantes.*

1. Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, el Ayuntamiento de Zumaia elaborará la propuesta de relación provisional de personas admitidas y excluidas y, en su caso, se resolverá mediante decretos de alcaldía de las tres entidades convocantes. A continuación, la lista se publicará en la forma prevista en la base vigésima.

En la relación provisional se indicarán los motivos de exclusión de cada una de las personas excluidas y se concederá un plazo de 10 días hábiles para formular reclamaciones y subsanar los defectos de la solicitud.

2. Las reclamaciones presentadas dentro del plazo serán aceptadas o rechazadas por resoluciones de alcaldía. Dichas resoluciones elevarán a definitiva la relación provisional de personas admitidas y excluidas. La relación definitiva se publicará en la forma prevista en la base vigésima.

En las relaciones anteriores, así como en todas las que se publiquen, se hará constar la identificación de las personas participantes y 4 números del Documento de Identidad elegidos al azar.

*Sexta. Sistema de selección.*

El sistema de selección será el de concurso-oposición, que se utilizará para determinar la capacidad de las personas aspirantes y el orden de prelación entre las mismas.

*Séptima. Tribunal calificador.*

1. Para la determinación, desarrollo y evaluación de las pruebas y méritos del concurso-oposición y la selección de las personas participantes se constituirá un tribunal calificador, de conformidad con lo previsto en el Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco y en el Decreto 315/1994, de 19 de julio.

El tribunal calificador estará compuesto por:

1.1. Presidente/a, nombrado/a a propuesta del Ayuntamiento de Zumaia.

1.2. Secretario/a, con voz pero sin voto.

1.3. Un/a representante designado/a a propuesta de la Academia Vasca de Policía y Emergencias.

EK\CV GAO-I-2025-03274

1.4. Zumaiako Udalak proposatuta izendatutako kide bat.

1.5. Azpeitiko Udalak proposatuta izendatutako kide bat.

1.6. Getariako Udalak proposatuta izendatutako kide bat.

1.7. Euskararen proba egiteko Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak (IVAP) izendatutako kide bat.

Epaimahaikide bakoitzak bere ordezkoa izango du, titularraren administrazio berak izendatuta.

2. Epaimahaiaren ezaugarriak.

2.1. Epaimahaiak hautaketa-sistema osatzen duten probak garatu eta ebaluatuko dituzte. Autonomia funtzional osoz jardungo dute, prozesuaren objetibotasunaren erantzule izango dira eta oinarriak betetzen direla bermatuko dute. Probaren batean irregulartasunen bat atzemanez gero, hori eragin duen izangaia zuzenean kaleratzeko ahalmena izango du.

2.2. Epaimahaikideek inpartzialtasun-, profesionaltasun- eta espezialitate-printzipioen arabera jokatuko dute, bai eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatuaren printzipioen arabera ere.

2.3. Epaimahaiko kideak ezin izango dira inola ere besteren kontura aritu.

2.4. Hautaketa edo izendapen politikoko langileak, behin-behineko langileak, bitarteko funtzionarioak edo aldi baterako lan-kontratua dutenak, eta azken bost urteetan enplegu publikoan sartu nahi duten izangaien prestakuntzan aritu direnak ezin izango dira Epaimahaiko kide izan.

2.5. Hautaketa-epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu, arrazoi pertsonalak, profesionalak edo bestelakoak direla medio, haien inpartzialtasuna zalantzan jar daitekeen kasuetan, ezta indarrean dagoen ordenamendu juridikoan aurreikusitako gainerako egoeretan ere.

2.6. Espezialitate-printzipioaren arabera, botoa emateko eskubidea duten kide guztiek sartzeko eskatzen den ikasketa-maila bera edo handiagoa izan beharko dute, eta kideen erdiek, gutxienez, jakintza-arlo bereko titulazio bat.

2.7. Ordezkaritza orekatuaren printzipioaren arabera, justifikatutako ezintasunik ezean, epaimahai kalifikatzailea modu orekatuan eratuta egongo da trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen bidez. Ordezkaritza orekatutzat joko da lau kide baino gehiagoko epaimahai kalifikatzaileetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza duenean eta, gainerako kasuetan, bi sexuak ordezkatuta daudenean.

2.8. Epaimahaiak aholkulari espezialisten parte hartzea ahalbidetu ahal izango du hautaketa-prozesua osatzen duten proba guztiak edo batzuk egiteko. Aholkulari espezialista horiek beren espezialitateen jardunari buruzko aholkularitza eta laguntza teknikoa baino ez dute emango. Aholkulari horien jarduna objetibotasunaren, inpartzialtasunaren eta konfiantzaren printzipioek ere arautuko dute.

2.9. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, Idazkariak izan ezik, horrek ez baitu botorik izango, eta Epaimahaiaren erabakiak bertaratutakoen botoen gehiengoz hartuko dira eta, berdinketa gertatuz gero, Lehendakari gisa diharduenaren botoak erabakiko du.

2.10. Epaimahaiak emandako ebazpenak lotesleak izango dira funtzionarioak izendatzeko eskumena duten organoentzat; nolanahi ere, deuseztatzeko irregulartasunen bat hautemanez gero, lotura horrek ez du eragotziko organo horiek ebazpenak berrikustea, administrazio-prozedura arautzen duten arauen arabera.

1.4. Un/a miembro/ designado/a a propuesta del Ayuntamiento de Zumaia.

1.5. Un/a miembro/ designado/a a propuesta del Ayuntamiento de Azpeitia.

1.6. Un/a miembro/ designado/a a propuesta del Ayuntamiento de Getaria.

1.7. Un/a miembro/a designado/a a por el Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP) para la realización de la prueba de euskera.

Cada miembro/a del Tribunal tendrá un/a suplente designado/a por la propia Administración titular.

2. Características del Tribunal.

2.1. Los Tribunales desarrollarán y evaluarán las pruebas que integran el sistema selectivo. Actuarán con plena autonomía funcional, responderán de la objetividad del proceso y garantizarán el cumplimiento de las bases. En caso de detectarse alguna irregularidad en alguno de las pruebas, tendrá la facultad de eliminar directamente a la persona aspirante que la haya originado.

2.2. Las personas del Tribunal actuarán de acuerdo con los principios de imparcialidad, profesionalidad y especialidad, así como de representación equilibrada de mujeres y hombres.

2.3. En ningún caso los/as miembros/as del Tribunal podrán ejercer la actividad por cuenta ajena.

2.4. No podrá formar parte del Tribunal el personal de elección o designación política, el personal eventual, el personal funcionario interino o con contrato laboral de carácter temporal, ni quienes hayan participado en la formación de aspirantes al acceso al empleo público en los últimos cinco años.

2.5. Las personas del Tribunal de selección deberán abstenerse de intervenir en aquellos supuestos en que, por razones personales, profesionales o de otra índole, su imparcialidad pueda ser puesta en cuestión, así como en los demás supuestos previstos en el ordenamiento jurídico vigente.

2.6. De acuerdo con el principio de especialidad, todas las personas integrantes con derecho a voto deberán poseer un nivel de estudios igual o superior al exigido para el ingreso y, al menos, la mitad de sus integrantes deberán poseer una titulación correspondiente a la misma área de conocimiento.

2.7. De acuerdo con el principio de representación equilibrada, salvo imposibilidad justificada, el tribunal calificador estará constituido de forma equilibrada por mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada. Se considera que existe una representación equilibrada cuando en los tribunales calificadores de más de cuatro miembros cada sexo está representado al menos al 40 % y en el resto cuando los dos sexos están representados.

2.8. El Tribunal podrá habilitar la participación de asesores/as especialistas para la realización de todas o algunas de las pruebas que integran el proceso selectivo. Estos asesores especialistas sólo prestarán asesoramiento y apoyo técnico sobre el desempeño de sus especialidades. Su actuación se regirá asimismo por los principios de objetividad, imparcialidad y confianza.

2.9. Todas las personas del Tribunal tendrán voz y voto, excepto el Secretario o la Secretaria que carecerá de voto, y los acuerdos del Tribunal se adoptarán por mayoría de votos de las personas asistentes, dirimiéndose los empates por el voto de la persona que actúe como Presidente/a.

2.10. Las resoluciones dictadas por el Tribunal serán vinculantes para los órganos competentes para el nombramiento de funcionarios y funcionarias, sin perjuicio de que, de apreciarse alguna irregularidad anulatoria, puedan ser objeto de revisión por dichos órganos de acuerdo con las normas reguladoras del procedimiento administrativo.


EK\CV GAO-I-2025-03274

Onartutako eta baztertutako pertsonen zerrendarekin batera, Epaimahaia osatzen duten kide titularren eta ordezkoen zerrenda argitaratuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, horiek hautaketa-prozesurako deia egin duten udaletako Alkateek izendatu ondoren.

2.11. Epaimahai kalifikatzaileko kideek ematen duten zerbitzuagatiko ordainsariei buruzko arauetan aurreikusitako legezko ordainsariak jasoko dituzte.

2.12. Kalifikazio-epaimahaiak ezin izango du hautatu deitutako plaza-kopurua baino hautagai gehiago, eta muga hori hausten duten proposamen guztiak erabat deusezak izango dira.

*Zortzigarrena. Oposizio-fasea.*

Oposizio-fasean gehienez 90 puntu lortu ahalko dira.

1. Lehenengo proba (40 puntu):

Proba derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da.

Test motako galderaz osatutako azterketa bat izango da. Galderen edukiak oinarri hauen I. eranskineko gai-zerrendan jasotakoaren arabera zehaztuko dira. Izangaiek ezagutu beharreko araudia proba egiteko momentuan indarrean dagoena izango da.

Test motako galdera bakoitzak lau erantzun-aukera izango ditu, eta horietako bakarra izango da zuzena.

Ariketa horretan izangaiak puntu 1 jasoko du erantzun zuzen bakoitzeko, eta erantzun oker bakoitzeko 0,333 puntu murriztuko zaizkio. Hutsik utzitako erantzunek ez dute punturik gehitu edo kenduko.

Proba horri 0tik 40 puntura bitarteko balioa emango zaio, eta automatikoki baztertuko dira gutxienez 20 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak. Edonola ere, izangaien nortasuna jakin aurretik eta ariketa egitera aurkeztutako izangaien % 50a lehenengo ariketa gainditzeko gutxieneko puntuaziora iritsiko ez balitz, Epaimahaiak ariketa gainditzeko gutxieneko puntuazioa egokitu ahal izango du, gaindituen portzentaje hori lortu arte. Kasu horretan, gutxieneko puntuazio hori lortzen duten izangai guztiek gaindituko dute lehenengo ariketa.

Epaimahaiak formula hau erabiliko du probako puntuazioa kalkulatzeko:

$$AP = \frac{(40 \text{ x } (EZ - EO \text{ x } 0{,}333))}{TP}$$

Non:

AP = Azken puntuazioa.

EZ = Erantzun zuzenen kopurua.

EO = Erantzun okerren kopurua.

GK = Galdera kopurua (erreserbakoak aintzat hartu gabe).

2. Bigarren proba (20 puntu):

Proba derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da.

19/2024 Dekretuak, otsailaren 22koak, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoak, 39. artikuluan arautzen duena kontuan izanik, proba hau euskara hutsean egingo da.

Izangaiek, Epaimahaiak planteatuko dituen kasu praktiko bat edo batzuk ebatzi beharko dituzte, hain zuzen, I. eranskinean gai zerrendarekin eta lanpostuaren funtzioekin zerikusia dutenak.

Proba horri 0tik 20 puntura bitarteko balioa emango zaio, eta automatikoki baztertuko dira gutxienez 10 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak. Edonola ere, izangaien nortasuna jakin aurretik eta ariketa egitera aurkeztutako izangaien % 50a lehenengo ariketa gainditzeko gutxieneko puntuaziora iritsiko ez balitz, Epaimahaiak ariketa gainditzeko gutxieneko puntuazioa egokitu ahal izango du, gaindituen portzentaje hori lortu arte. Kasu ho-

Junto con la relación de personas admitidas y excluidas, se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa la relación de integrantes titulares y suplentes que componen el Tribunal, designados/as por los Alcaldes y Alcaldesas de los Ayuntamientos convocantes del proceso selectivo.

2.11. Las personas del Tribunal Calificador percibirán las indemnizaciones legales previstas en las normas sobre indemnizaciones por razón de servicio.

2.12. El Tribunal Calificador no podrá seleccionar más aspirantes que el número de plazas convocadas, siendo nulas de pleno derecho las propuestas que infrinjan tal limitación.

*Octava. Fase de oposición.*

La puntuación máxima alcanzable en la fase de oposición será de 90 puntos.

1. Primera prueba (40 puntos):

La prueba será obligatoria y eliminatoria.

Consistirá en un examen compuesto de preguntas tipo test. El contenido de las preguntas se determinará de acuerdo con lo recogido en el temario del anexo I de las presentes bases. La normativa a conocer por las personas aspirantes será la vigente en el momento de la realización de la prueba.

Cada pregunta tipo test tendrá cuatro opciones de respuesta, de las cuales una será la correcta.

En este ejercicio las personas aspirantes recibirán 1 punto por cada respuesta correcta, minorándose en 0,333 puntos por cada respuesta incorrecta. Las respuestas en blanco no sumarán ni restarán puntos.

Esta prueba se valorará de 0 a 40 puntos, quedando automáticamente excluidas las personas aspirantes que no alcancen una puntuación mínima de 20 puntos. En todo caso, si con anterioridad a conocer la identidad de las personas aspirantes, el 50 % de los y las aspirantes presentados/as a la realización del ejercicio no alcanzase la puntuación mínima necesaria para superar el primer ejercicio, el Tribunal podrá adaptar la puntuación mínima hasta alcanzar dicho porcentaje de aprobados/as. En este caso, todas las personas aspirantes que alcancen dicha puntuación mínima superarán el primer ejercicio.

El Tribunal calculará la puntuación de la prueba con la siguiente fórmula:

$$PF = \frac{(40 \text{ x } (RC - RI \text{ x } 0{,}333))}{TP}$$

Donde:

PF = Puntuación final.

RC = Número de respuestas correctas.

RI = Número de respuestas incorrectas.

TP = Número total de preguntas (no incluyendo las de reserva).

2. Segunda prueba (20 puntos):

La prueba será obligatoria y eliminatoria.

De conformidad con lo establecido en el artículo 39 del Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco, esta prueba se realizará exclusivamente en euskara.

Las personas aspirantes tendrán que resolver uno o varios supuestos prácticos que planteará el Tribunal, relacionados con el temario del anexo I así como con las funciones del puesto.

Esta prueba se valorará de 0 a 20 puntos, quedando automáticamente excluidas las personas aspirantes que no alcancen una puntuación mínima de 10 puntos. En todo caso, si con anterioridad a conocer la identidad de las personas aspirantes, el 50 % de los y las aspirantes presentados/as a la realización del ejercicio no alcanzase la puntuación mínima necesaria para superar el primer ejercicio, el Tribunal podrá adaptar la puntua-

EK\CV GAO-I-2025-03274

rretan, gutxieneko puntuazio hori lortzen duten izangai guztiek gaindituko dute lehenengo ariketa.

3. Hirugarren proba (15 puntu):

Gaitasun fisikoko ariketak.

Proba derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da.

Proba honi 0 eta 15 puntu arteko balioa emango zaio, eta kanpoan geratuko dira automatikoki, gutxienez 7,5 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak, baita lehenengo proba fisikoa gainditzen ez dutenak ere.

Oinarri hauen III. eranskinean jasotzen diren lau ariketak egingo dira, eta horretarako ezarritako baremoen arabera baloratuko dira. Baremo horiek aipatutako eranskinean zehaztuta daude.

Probaren puntuazioen aurrean egon daitezkeen erreklamazioei erantzun egoki bat eman ahal izateko, proba grabatu egingo da.

4. Laugarren proba (15 puntu):

Proba derrigorrezkoa izango da eta ez da baztertzailea izango.

19/2024 Dekretuak, otsailaren 22koak, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoak, 39. artikuluan arautzen duena kontuan izanik, proba hau euskara hutsean egingo da eta hautaketa-prozesuan parte hartzen duten udalerrien eta horien ordenantza nahiz arauen ezagutzari buruzkoa izango da. Horretarako, ariketaren hasieran, izangai bakoitzak oinarri hauen II. eranskinean jasotako hiru aukeretako bat hautatu beharko du. Test motako 30 galderaz osatuta egongo da. Galderetako bakoitzak lau erantzun-aukera izango ditu, eta horietatik bakarra izango da zuzena. Nolanahi ere, azterketa egiteko eskatzen den euskara-maila ez da Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 baino handiagoa izango.

Ariketa horretan, erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1 jasoko da eta erantzun oker bakoitzeko 0,333 puntu murriztuko zaizkio. Hutsik utzitako erantzunek ez dute punturik gehituko edo kenduko.

Ariketa honi 0 eta 15 puntu artean emango zaizkio, eta formula hau erabiliko da puntuen azken zenbaketarako:

$$AP = \frac{(15 \text{ x } (EZ - EO \text{ x } 0{,}333))}{30}$$

Non:

AP = Azken puntuazioa.

EZ = Erantzun zuzenen kopurua.

EO = Erantzun okerren kopurua.

5. Bosgarren proba: Euskara. 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea. Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Maila hori egiaztatzen duen ziurtagiria zehaztutako epean aurkeztu ez duten hautagaiek egin beharko dute proba.

Proba honetan, maila horretan euskararen ezagutza zehaztu eta egiaztatu beharko da.

Proba hau Gaitzat edo Ez Gaitzat joko da.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dauden hautagaiek ez dute berriro egiaztatu beharko. Era berean, ez da beharrezkoa izango dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztea apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzkoan, jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan, salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen bada.

ción mínima hasta alcanzar dicho porcentaje de aprobados/as. En este caso, todas las personas aspirantes que alcancen dicha puntuación mínima superarán el primer ejercicio.

3. Tercera prueba (15 puntos):

Ejercicios de aptitud física.

La prueba será obligatoria y eliminatoria.

Esta prueba se valorará de 0 a 15 puntos, quedando automáticamente eliminadas las personas aspirantes que no alcancen un mínimo de 7,5 puntos, así como los que no superen la primera prueba física.

Se realizarán los cuatro ejercicios que se recogen en el anexo III de estas bases y se valorarán de acuerdo con los baremos establecidos al efecto. Dichos baremos se detallan en el citado anexo.

Para poder dar una respuesta adecuada a las posibles reclamaciones ante las puntuaciones de la prueba, ésta será grabada.

4. Cuarta prueba (15 puntos):

La prueba será obligatoria y no eliminatoria.

De conformidad con lo establecido en el artículo 39 del Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco, esta prueba se realizará exclusivamente en euskera y versará sobre el conocimiento de las personas participantes sobre los municipios en el proceso selectivo y de sus ordenanzas y normas. Para ello, al inicio del ejercicio, cada aspirante deberá elegir una de las tres opciones recogidas en el anexo II de estas bases. Constará de 30 preguntas tipo test. Cada pregunta tendrá cuatro opciones de respuesta, de las cuales una será la correcta. En todo caso, el nivel de euskera exigido para la realización del examen no podrá ser superior al B2 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas aprobado por el Consejo de Europa.

Este ejercicio se valorará con 1 punto por cada respuesta correcta y se reducirá en 0,333 puntos por cada respuesta incorrecta. Las respuestas en blanco no sumarán ni restarán puntos.

Este ejercicio se valorará de 0 a 15 puntos, utilizándose la siguiente fórmula para el cómputo final de puntos:

$$PF = \frac{(15 \text{ x } (RC - RI \text{ x } 0{,}333))}{30}$$

Donde:

PF = Puntuación final.

RC = Número de respuestas correctas.

RI = Número de respuestas incorrectas.

5. Quinta prueba: Euskera. Acreditación del perfil lingüístico 2.º Obligatorio y eliminatorio.

Deberán realizar la prueba aquellas personas aspirantes que no hayan presentado la certificación acreditativa de dicho nivel en el plazo establecido.

En esta prueba se deberá determinar y acreditar el conocimiento de euskera en este nivel.

Esta prueba se considerará Apto/a o No Apto/a.

Las personas candidatas que se encuentren acreditadas y acreditadas en el Registro Unificado de Títulos y Certificados de Euskera no tendrán que volver a acreditarlo. Tampoco será necesaria la presentación de la correspondiente certificación académica en el caso de las exenciones de acreditación contempladas en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera, cuando dicha exención conste en el Registro Unificado de Títulos y Certificados de Euskera.

Nolanahi ere, euskarako edozein titulu edo ziurtagiri egiaztatzeko gehienezko epea euskarako ariketa egiten den eguna izango da.

Dagozkion egiaztapenak egiteko, interesdunak berariazko baimena emango dio Zumaiako Udalari ziurtagiria edo haren salbuespena erregistro horretan egiaztatzeko.

Nolanahi ere, interesdunak bere datuak kontsultatu ahal izango ditu Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan, esteka honen bidez: https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/.

Hizkuntza-eskakizunen baliokideak diren ziurtagiriak eta tituluak azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan zehazten dira (297/2010 Dekretua, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzen dituena Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin), bai eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ere (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzkoa).

*Bederatzigarrena. Oposizio-faseko probak garatzea.*

1. Probak ezin izango dira hasi deialdia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hilabete igaro arte.

2. Lehen proba egiteko eguna, ordua eta lekua gutxienez zazpi egun natural lehengo iragarriko dira, Zumaiako Alkatearen ebazpen bidez. Gainerako probak egiteko iragarkiak hogeigarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko dira, gutxienez 72 ordu lehenago, Epaimahai kalifikatzailearen erabaki bidez.

3. Epaimahai kalifikatzaileak erabaki ahal izango du oposizioa osatzen duten probak eta ariketak zazpigarren oinarrian ezarritakoaz bestelako ordena batean egitea, bai eta egun berean hainbat ariketa egitea ere. Kasu horretan, proben eta/edo ariketen emaitzen argitalpenek deialdiaren oinarrietan ezarritako hurrenkerari jarraituko diote. Proba eta/edo ariketa bakoitzaren emaitzak aurrekoa gainditu dutenen kasuan bakarrik argitaratuko dira, zazpigarren oinarriko ordenari jarraituz.

4. Epaimahaiak nahitaezko probak egiteko egindako deialdira horretarako adierazitako egunean, orduan eta lekuan agertzen ez diren pertsonak automatikoki baztertuko dira hautaketa-prozesutik. Arau bera aplikatuko zaie edozein nahitaezko ariketa egiten parte hartzen dutenei, proba hasi ondoren.

Nahitaezko proba batek azpi-proba bat baino gehiago badu, ez-agertzea edo atzerapena ariketa horietako edozeini dagokiola ulertuko da.

5. Aurretik ezarritako salbuespenarekin, eta hautaprobetan aukera-berdintasuna eta tratu-berdintasuna bermatze aldera, Epaimahai kalifikatzaileak ariketak egiteko datak eta/edo lekuak egokitu ahal izango ditu haurdunaldian, erditzean edo erditu ostean arriskua duten emakumeen kasuan, baldin eta inguruabar horiek Epaimahai kalifikatzaileari jakinarazten bazaizkio eta ariketa egin aurreko ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badira.

6. Izangaiek Estatuaren nortasun-agiria, pasaportea edo indarrean dagoen gidabaimena eraman beharko dute proba eta ariketetara, eta Epaimahai kalifikatzaileak une oro eskatu ahal izango du horiek aurkeztea.

7. Proba baztertzaile bakoitza amaitzean, parte-hartzaileek hautaketa-prozesuan lortutako emaitzak hogeigarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko dira, Epaimahai Kalifikatzailearen erabakiaren bidez, lortutako puntuazioa berariaz adierazita, edo, hala badagokio, emaitza Gai den edo ez. Proben edo ariketen emaitzak bi hamartarrekin argitaratuko dira.

En todo caso, el plazo máximo para la acreditación de cualquier título o certificado de euskera será el de la fecha de celebración del ejercicio de euskera.

Para realizar las comprobaciones oportunas, la persona interesada autorizará expresamente al Ayuntamiento de Zumaia a comprobar en dicho registro el certificado o su exención.

No obstante, la persona interesada podrá consultar sus datos en el Registro Unificado de Títulos y Certificados de Euskera a través del siguiente enlace: https://www.euskadi.eus/registro-unificado-de-titulos-y-certificados-de-euskera/web01-a2etzeb/es/.

Los certificados y títulos equivalentes a los perfiles lingüísticos se determinan en el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, y en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.

*Novena. Desarrollo de las pruebas de la fase de oposición.*

1. Las pruebas no podrán iniciarse hasta transcurrido un mes desde la publicación de la convocatoria en el *Boletín Oficial del Estado*.

2. El día, la hora y el lugar de celebración de la primera prueba se anunciarán con una antelación mínima de siete días naturales mediante resolución del Alcalde de Zumaia. Los anuncios para la realización de las restantes pruebas se publicarán, con una antelación mínima de 72 horas, en la forma prevista en la base vigésima, mediante acuerdo del Tribunal calificador.

3. El Tribunal Calificador podrá acordar la realización de las pruebas y ejercicios que integran la oposición en un orden distinto al establecido en la base séptima, así como la realización de varios ejercicios en el mismo día. En este caso, las publicaciones de los resultados de las pruebas y/o ejercicios se regirán por el orden establecido en las bases de la convocatoria. Los resultados de cada prueba y/o ejercicio se harán públicos, siguiendo el orden de la base séptima, únicamente para quienes hayan superado la anterior.

4. Las personas que no comparezcan el día, hora y lugar señalado por el Tribunal a la convocatoria de pruebas obligatorias serán automáticamente excluidas del proceso selectivo. La misma regla se aplicará a quienes participen en la realización de cualquier ejercicio obligatorio, una vez iniciada la prueba.

Si alguno de las pruebas obligatorias consta de más de una subprueba, la inasistencia o retraso se entenderá referido a cualquiera de ellos.

5. Con la salvedad establecida anteriormente, y con el fin de garantizar la igualdad de oportunidades e igualdad de trato en las pruebas selectivas, el Tribunal Calificador podrá adaptar las fechas y/o lugares de realización de los ejercicios en el caso de mujeres en riesgo de embarazo, parto o posparto, siempre que tales circunstancias se comuniquen al Tribunal Calificador y se acrediten mediante certificación previa a la realización del ejercicio.

6. Las personas aspirantes deberán portar a las pruebas y ejercicios el documento nacional de identidad, pasaporte o permiso de conducir en vigor, cuya presentación podrá ser exigida en todo momento por el Tribunal calificador.

7. Al finalizar cada uno de las pruebas eliminatorias, los resultados obtenidos por las personas participantes en el proceso selectivo se harán públicos en la forma prevista en la base vigésima, mediante Acuerdo del Tribunal Calificador, con indicación expresa de la puntuación obtenida o, en su caso, si el resultado es Apto o No Apto. Los resultados de las pruebas o ejercicios se publicarán con dos decimales.

EK\CV GAO-I-2025-03274

*Hamargarrena. Lehiaketa (10 puntu).*

1. Lehiaketa-faseko kalifikazioa oposizio-fasea gainditu duten pertsonei soilik aplikatuko zaie.

2. Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik eskuratutako merezimenduak soilik ebaluatu ahal izango dira. Ebaluatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da kontuan hartzea nahi diren merezimenduak izena emateko eskaeran zehatz-mehatz adieraztea.

3. Oposizio-fasea amaitu ondoren, Epaimahai kalifikatzaileak 5 egun balioduneko epea zabalduko du oposizio-fasea gainditu duten izangaiek alegatutako merezimenduen ziurtagiriak aurkeztu ditzaten.

4. Aurreko puntuan aipatutako 5 egun balioduneko epe berean, oposizio-fasea gainditu duten hautagaiek lehentasun ordenaren arabera adierazi beharko dituzte deialdi honen xede diren hiru administrazioetako zein polizia-destino eta -zerbitzuan lan egin nahi duten. Destinoen zerrenda ordenatua loteslea izango da eta adjudikazioak oposizio- eta lehiaketa-faseetan lortutako puntuazioaren baturan oinarrituta egingo dira.

5. Titulazio eta diploma ofizialtzat hartuko dira soilik Hezkuntza Ministerioak horrela onartutakoak.

6. Lehiaketa-fasea ez da baztertzailea izango eta fase horretan lortutako puntuazioa ezin izango da erabili oposizioko probak gainditzeko edo lortutako kalifikazioak aldatzeko.

7. Izena emateko orrian adierazitako merezimenduak lotesleak dira Epaimahai kalifikatzailearentzat eta bertan adierazi eta/edo behar bezala egiaztatu ez diren merezimenduak ezin izango dira inolaz ere baloratu edo kontuan hartu. Merezimendu horiek Epaimahaiak edozein momentutan egiaztatu ahal izango ditu.

8. Lehiaketa-fasean 10 puntu emango dira gehienez, baremazio honen arabera:

a) Titulazio Ofizialak (Hezkuntza Ministerioak emandakoak): 3 puntu gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Estatuko Esparruko 1. mailan dauden titulazio ofizialak (Kualifikazioen Europako Esparruko 5. maila); batxilergoa eta goi mailako heziketa-zikloak: 1 puntu tituluko.

a.2) Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Estatuko Esparruko 2. mailan dauden titulazio ofizialak (Kualifikazioen Europako Esparruko 6. maila); unibertsitate-graduak: 2 puntu tituluko.

a.3) Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Estatuko Esparruko 3. mailan edo goragokoan dauden titulazio ofizialak (Kualifikazioen Europako Esparruko 7. maila edo goragokoa); unibertsitate-masterrak eta doktoretzak: 3 puntu.

b) Lanbide-esperientzia: Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako kidegoetan Oinarrizko Eskalako Agente gisa egindako zerbitzuak: 0,05 puntu emandako egun bakoitzeko: gehienez 3,5 puntu.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.c artikulua betez, honako hauek hartuko dira lanaldi osoan emandako zerbitzutzat: lanbide-esperientziaren ondorioetarako: hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran emandako denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa modu erantzukidean bateratzen laguntzea xede duena, eta langile publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora.

*Décima. Concurso (10 puntos).*

1. La calificación de la fase de concurso será de aplicación únicamente a las personas que hayan superado la fase de oposición.

2. Únicamente podrán ser objeto de evaluación los méritos adquiridos con anterioridad a la finalización del plazo de presentación de solicitudes. Será requisito indispensable para su evaluación que en la solicitud de inscripción se expresen con precisión los méritos que se desea que se tengan en cuenta.

3. Finalizada la fase de oposición, el Tribunal Calificador abrirá un plazo de 5 días hábiles para que los aspirantes que hayan superado la fase de oposición presenten la documentación justificativa de los méritos alegados.

4. En el mismo plazo de 5 días hábiles señalado en el punto anterior, las personas aspirantes que hayan superado la fase de oposición deberán indicar por orden de preferencia los destinos y servicios policiales de las tres administraciones objeto de esta convocatoria a los que deseen optar. La relación ordenada de destinos tendrá carácter vinculante y las adjudicaciones se realizarán sobre la base de la suma de las puntuaciones obtenidas en las fases de oposición y concurso.

5. Sólo tendrán la consideración de titulaciones y diplomas oficiales los reconocidos como tales por el Ministerio de Educación.

6. La fase de concurso no tendrá carácter eliminatorio y la puntuación obtenida en ella no podrá ser utilizada para superar pruebas de la oposición o modificar las calificaciones obtenidas.

7. Los méritos alegados en la instancia se solicitud de inscripción vinculan al Tribunal Calificador y en ningún caso podrán ser valorados o tenidos en cuenta aquellos que no hubieran sido alegados en el mismo y/o debidamente acreditados. Dichos méritos podrán ser comprobados en cualquier momento por el Tribunal.

8. La fase de concurso tendrá una puntuación máxima de 10 puntos, conforme a la siguiente baremación:

a) Titulaciones Oficiales (expedidas por el Ministerio de Educación): hasta 3 puntos, conforme al siguiente baremo:

a.1) Titulaciones oficiales del nivel 1 del Marco Estatal de Cualificaciones para la Educación Superior (nivel 5 del Marco Europeo de Cualificaciones); bachillerato y ciclos formativos de grado superior: 1 punto por título.

a.2) Titulaciones oficiales del nivel 2 del Marco Estatal de Cualificaciones para la Educación Superior (nivel 6 del Marco Europeo de Cualificaciones); grados universitarios: 2 puntos por título.

a.3) Titulaciones oficiales de nivel 3 o superior del Marco Estatal de Cualificaciones para la Educación Superior (nivel 7 o superior del Marco Europeo de Cualificaciones); másteres y doctorados universitarios: 3 puntos.

b) Experiencia profesional: servicios prestados como Agente de la Escala Básica en los Cuerpos de Policía del País Vasco: 0,05 puntos por día trabajado hasta un máximo de 3,5 puntos.

En cumplimiento del artículo 21.1.c del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para la Vida Libre de Violencia Machista, se entiende por servicios prestados en jornada completa, a efectos de experiencia profesional, el tiempo en el que las personas candidatas se encuentren en situación de excedencia por cuidado de familiares o por razón de violencia de género, el tiempo imputable a reducciones de jornada o permisos que tengan por objeto la protección de la maternidad y la paternidad, con el fin de favorecer la conciliación corresponsable de la vida personal, familiar y laboral, y el tiempo en el que las personas empleadas públicas hayan disfrutado de permisos por razón de violencia de género.

EK\CV GAO-I-2025-03274

Egindako zerbitzuak eskabidean alegatu beharko dira, eta interesdunek toki-administrazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute (Herri Administrazioan aurretiazko zerbitzuak aitortzeari buruzko abenduaren 26ko 70/1978 Legea aplikatzeko arauak ematen dituen ekainaren 25eko 1461/1982 Errege Dekretuaren I. eranskineko eredua).

c) Prestakuntza-ikastaroak: gehienez 2,5 puntu emango dira eta, Epaimahai kalifikatzailearen iritziz, lanpostuarekin lotura zuzena duten erakunde publikoek edo haiek aitortutako erakundeek antolatutako edo emandako prestakuntza-ikastaroak eta jarduerak baloratuko dira, baremo honen arabera:

c.1) 20 ordu arte (barne): 1 puntu.

c.2) 20 ordutik aurrera: 2 puntu.

d) Informatikako ezagutzak: 1 puntu gehienez: honako IT txartelak puntuatuko dira:

d.1) Microsoft Word oinarrizkoa, 2000/XP/2003/2007/2010 bertsioetan: 0,5 puntu.

d.2) Microsoft Word aurreratua, 2000/XP/2003/2007/2010 bertsioetan: 1 puntu.

Egiaztatutako Word bertsio eta/edo maila desberdinek ezin izango dute balorazio bat baino gehiago ekarri eta, beraz, maila handienekoa eta bertsio berrienekoa soilik hartuko da kontuan.

*Hamaikagarrena. Hautaketa-prozesua gainditzen duten izangaien behin-behineko eta behin betiko zerrendak.*

1. Oposizio-faseko proba bakoitzaren ondoren, Epaimahai kalifikatzaileak izangaien behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta izangaiek hamar egun balioduneko epea izango dute, horiek hogeigarren oinarriaren arabera argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, egoki iritzitako erreklamazio eta/edo alegazioak aurkezteko. Erreklamazio eta/edo alegazio horiek guztiak Zumaiako Udalaren erregistroan aurkeztu beharko dira. Behin-behineko emaitza horien aurka aurkezturiko erreklamazio edo alegazioak ebatzi ondoren, Epaimahai kalifikatzaileak proba bakoitzaren behin betiko emaitzak onartu eta argitaratuko ditu. Erreklamazio edo alegaziorik egongo ez balitz, behin-behineko emaitzak behin betiko bihurtuko dira automatikoki.

2. Merezimendu-fasearen behin-behineko emaitzekin ere aurreko puntuan jasotako prozedura bera mantenduko da.

3. Oposizio- eta lehiaketa-faseetako behin betiko emaitzak onartzerakoan, hautaketa-prozesuaren puntuazio totala onartuko da. Puntuazio oso hori oposizio- eta lehiaketa-faseetako emaitzen batura izango da. Batura horren emaitza erabiliko da izangaien lehentasun-ordena zehazteko eta hurrenkera hori hogeigarren oinarrian jasotakoaren arabera argitaratuko da.

Hautaketa-prozesuko behin-behineko puntuazio totalen zerrendarekin batera, bederatzigarren oinarriko 4. puntuan araututakoaren arabera hautagaiek egindako destinoen aukeraketa jasoko da.

4. Aurreko paragrafoan aipatutako puntuazio oso horren behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute haren aurka egokitzat jotzen dituzten alegazio edo erreklamazioak egiteko, eta behin betiko zerrenda onartu baino lehen ebatziko dira.

5. Epe hori igarotakoan, Epaimahaiak seigarren oinarriko 2.10 idatz-zatian aurreikusitakoaren arabera, behin betiko zerrenda onartuko du, eta hogeigarren oinarrian ezarritakoaren arabera argitaratuko du, lortutako puntuazio-ordenaren araberako hurrenkeran ordenatuta.

Los servicios prestados deberán alegarse en la solicitud y las personas interesadas deberán presentar certificado de la Administración Local correspondiente (modelo del anexo I del Real Decreto 1461/1982, de 25 de junio, por el que se dictan normas para la aplicación de la Ley 70/1978, de 26 de diciembre, sobre reconocimiento de servicios previos en la Administración Pública).

c) Cursos de formación: se valorará hasta un máximo de 2,5 puntos, valorándose los cursos y actividades de formación organizados o impartidos, a juicio del Tribunal Calificador, por organismos públicos directamente relacionados con el puesto de trabajo o entidades reconocidas por éstos, de acuerdo con el siguiente baremo:

c.1) Hasta 20 horas (inclusive): 1 punto.

c.2) A partir de 20 horas: 2 puntos.

d) Conocimientos informáticos: hasta 1 punto: se puntuarán las siguientes IT txartelas:

d.1) Microsoft Word básico, versión 2000/XP/2003/2007/2010: 0,5 puntos.

d.2) Microsoft Word avanzado, versión 2000/XP/2003/2007/2010: 1 punto.

Las diferentes versiones y/o niveles de Word acreditados no podrán dar lugar a más de una valoración, por lo que sólo se tendrá en cuenta la de mayor nivel y la de la versión más reciente.

*Undécima. Relaciones provisionales y definitivas de aspirantes que aprueban el proceso selectivo.*

1. Tras cada prueba de la fase de oposición, el Tribunal Calificador hará públicos los resultados provisionales de las personas aspirantes, quienes dispondrán de un plazo de diez días hábiles, contados a partir del día siguiente al de su publicación conforme a la base vigésima, para formular las reclamaciones y/o alegaciones que estimen oportunas. Todas estas reclamaciones y/o alegaciones deberán presentarse en el registro del Ayuntamiento de Zumaia. Resueltas las reclamaciones o alegaciones presentadas contra los resultados provisionales, el Tribunal Calificador aprobará y publicará los resultados definitivos de cada prueba. Si no hubiera reclamaciones o alegaciones, los resultados provisionales se elevarán automáticamente a definitivos.

2. Con los resultados provisionales de la fase de méritos se mantendrá el mismo procedimiento que el recogido en el punto anterior.

3. La aprobación de los resultados definitivos de las fases de oposición y concurso dará lugar a la puntuación total del proceso selectivo. Esta puntuación total será la suma de los resultados de las fases de oposición y concurso. El resultado de esta suma servirá para determinar el orden de prelación de las personas aspirantes y se publicará conforme a lo previsto en la base vigésima.

La relación de puntuaciones provisionales totales del proceso selectivo incluirá la elección de destinos realizada por las personas aspirantes de acuerdo con lo regulado en el punto 4 de la base novena.

4. A partir del día siguiente a la publicación de la relación provisional de la puntuación total a que se refiere el apartado anterior, las personas interesadas dispondrán de un plazo de 10 días hábiles para formular las alegaciones o reclamaciones que estimen oportunas contra la misma, las cuales se resolverán antes de la aprobación de la lista definitiva.

5. Transcurrido dicho plazo, el Tribunal aprobará, de conformidad con lo previsto en la base sexta, apartado 2.10, la relación definitiva, que será publicada conforme a lo establecido en la base vigésima, ordenándose por orden de puntuación obtenida.

EK\CV GAO-I-2025-03274

*Hamabigarrena. Destinoak adjudikatzea.*

a) Xedapen orokorra:

Aurreko tituluaren arabera oposizio-lehiaketa gainditutako izangaiei lanpostuak adjudikatzeko Epaimahaiak zerrenda bakarra egingo du prozesu honi atxikitako udalerri bakoitzeko. Horretarako, Epaimahaiak destinoak adieraziko ditu, hautagaien lehentasun-hurrenkeraren eta lanpostu-lehentasunaren arabera, zerrenda bakoitzean eskainitako plaza guztiak lortu arte.

Sailkapen-ordenako puntuazioaren berdinketak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.a) artikuluan jasotako irizpidearen arabera ebatziko dira. Berdinketak jarraitzen badu, oposizioko lehen proban puntuaziorik handiena lortu duenaren alde ebatziko da, eta subsidiarioki, bigarren proban puntuaziorik handiena lortu duenaren alde. Berdinketak jarraituko balu, zozketa bidez erabakiko da.

b) Emakumeen eta gizonen presentziaren oreka.

Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 66.3 artikulua betez, eta nolanahi ere, destinoen adjudikazio-zerrendak Zumaiako eta Azpeitiko Udaltzaingoei erreferentzia egiten dienean, lortutako emaitzek Legegintzako Dekretuak ezarritako emakumeen % 40ko helburua lortzen ez duenean, emakumezko hautagaiei lehentasuna emango zaie gizonezko hautagaien gainetik, lortu nahi den helburua bete arte, baldin eta:

b.1) Hautaketa-sistemaren oposizio-faseko probak eta ariketak gainditzeagatik zehaztutako gaitasun-baliokidetasuna dagoenean.

b.2) Lehentasun hori aplikatuta hautatutako emakumezko hautagaietako batek ere ez badu % 15eko puntuazio-diferentziarik nahi ziren gizonezko hautagaien aldean, oposizio-fasean eta, hala badagokio, lehiaketa-fasean.

b.3) Beste hautagaiak ez badu betetzen legez aurreikusitako arrazoirik, sexuaren ziozko diskriminaziorik eragin gabe, neurria ez aplikatzea justifikatzen duenik, hala nola enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

c) Hautatutako pertsonen zerrenda.

Aurreko xedapenetan ezarritako izapidea egin ondoren, Epaimahaiak hautatutakoen zerrenda onartu eta argitaratuko du, hogeigarren oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta hautaketa-prozesuan parte hartzen duten toki-korporazioetako organo eskudunei helaraziko die proposamena. Zerrenda horretan, hautaketa-prozesua gainditu dutenak eta deitutako plazakopuruan tokia dutenak zeintzuk diren zehaztuko da. Zerrenda hau onartu eta hautaketa-prozesuan parte hartzen duten udal bakoitzari jakinarazi ostean, Epaimahaiak bere lanak amaitutzat emango ditu.

*Hamahirugarrena. Betekizunak eta merezimenduak egiaztatzea.*

1. Hautatutako pertsonek Epaimahai kalifikatzailearen azken erabakia argitaratu eta hurrengo 15 egun balioduneko epean, deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dituzte destinoko Udaleko Erregistroan. Interesdunak hala eskatuz gero, eta ezinbesteko kasuetan, destinoko udaleko Alkateak epe hori luzatu ahal izango du, gehienez ere 7 egun baliodunera arte.

2. Ofizioz, honako baldintza/informazio hauek egiaztatu eta/edo espedienteari gehituko zaizkio, interesdunak berariaz kontrakoa adierazten ez badu eta interesdunak berariaz alegatu baditu:

*Duodécima. Adjudicación de destinos.*

a) Disposición general:

Para la adjudicación de puestos de trabajo a las personas aspirantes que hayan aprobado el concurso-oposición de acuerdo con el título anterior, el Tribunal confeccionará una lista única por cada municipio afectado. A tal efecto, el Tribunal señalará los destinos por orden de prelación de las personas aspirantes obtenido en las fases de oposición y concurso y preferencia de destinos hasta obtener la totalidad de las plazas ofertadas en cada lista.

Los empates en la puntuación por orden de clasificación se resolverán conforme al criterio recogido en el artículo 21.1.a) del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para Vidas Libres de Violencias Machistas. De persistir el empate, éste se dirimirá a favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación en la primera prueba de la oposición y subsidiariamente a favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación en la segunda prueba. Si persistiera el empate, se decidirá por sorteo.

b) Equilibrio de presencia de mujeres y hombres.

En cumplimiento del artículo 66.3 del Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco, y en todo caso, cuando la relación de asignación de destinos haga referencia a las Policías Locales de Zumaia y Azpeitia, cuando los resultados obtenidos no alcancen el objetivo del 40 % de mujeres establecido por el Decreto Legislativo, se dará prioridad a las candidatas mujeres sobre los candidatos hombres hasta alcanzar el objetivo perseguido, siempre que:

b.1) Exista la equivalencia de competencia determinada por la superación de las pruebas y ejercicios de la fase de oposición del sistema selectivo.

b.2) Ninguna de las candidatas mujeres seleccionadas en aplicación de esta preferencia tenga una diferencia de puntuación del 15 % con respecto a los candidatos masculinos deseados, en la fase de oposición y, en su caso, en la de concurso.

b.3) Cuando el otro candidato no reúna las causas legalmente previstas que justifiquen la no aplicación de la medida, sin incurrir en discriminación por razón de sexo, así como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso al empleo.

c) Relación de personas seleccionadas.

Realizado el trámite establecido en las disposiciones anteriores, el Tribunal aprobará y publicará la relación de personas seleccionadas, de conformidad con lo previsto en la base vigésima, elevando su propuesta a los órganos competentes de las Corporaciones Locales que participen en el proceso selectivo. En dicha relación se especificarán las personas que han superado el proceso selectivo y aquellas que tienen plaza en el número de plazas convocadas. Una vez aprobada esta relación y notificada a cada uno de los Ayuntamientos participantes en el proceso selectivo, el Tribunal dará por terminados sus trabajos.

*Decimotercera. Acreditación de requisitos y méritos.*

1. Las personas seleccionadas deberán presentar en el Registro del Ayuntamiento de destino, dentro de los 15 días hábiles siguientes a la publicación de la Resolución final del Tribunal Calificador, los documentos originales o copias compulsadas que acrediten los requisitos exigidos para participar en la convocatoria. A petición de la persona interesada, y en casos de fuerza mayor, el Alcalde o la Alcaldesa del municipio de destino podrá ampliar este plazo hasta un máximo de 7 días hábiles.

2. De oficio, se comprobarán y/o incorporarán al expediente, salvo que la persona interesada manifieste expresamente lo contrario y haya sido alegado expresamente, los siguientes requisitos/informaciones:

EK\CV GAO-I-2025-03274

— Nortasun-datuak egiaztatzea.

— Titulazio akademikoak (unibertsitate zein unibertsitatez kanpokoak).

— Hizkuntza-eskakizun altuena (Euskara).

— Ikastaroen ziurtagiria: IVAPen bidez (Administrazio Publikoaren Euskal Institutua) egindako eta gainditutako ikastaroen zerrenda.

— Gidabaimenak (DGT).

Aurkeztu beharreko dokumentuak Zumaiako Udalak badauzka, ez dira berriro aurkeztu behar izango, baldin eta eman ziren data eta bulegoa adierazten badira eta dagokien prozesua bukatu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzailearen aurkakotasun arrazoitua agertzen bada eta tratamendu-jardueraren organo arduradunak aintzat hartzen badu.

Agiri batzuk kontsultatzearen aurka agertuz gero, aurkakotza horrekin batera nahitaez aurkeztu beharko dira agiri horiek.

Hautatutako pertsonak, karrerako funtzionario izendatu aurretik, merezimenduei eta baldintzei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, baldin eta:

— Epaimahai Kalifikatzaileak ezin izan badu egiaztapena egin, edo

— Izangaiak egiaztapen horren aurka agertu badira, organo eskudunak aurkakotza hori aintzat hartu duenean.

Hala ere, Epaimahai Kalifikatzaileak, prozeduraren aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du dokumentazio hori aurkezteko.

3. Ez dira praktiketako funtzionario izendatuko aurreko paragrafoan adierazitako epearen barruan, edo, hala badagokio, luzapenaren barruan, deialdian parte hartzeko eskatutako betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkezten ez dutenak, ez eta mediku-bazterketen koadroa egiaztatzen dutenak ere, baldin eta ondorioztatzen bada eskatutako baldintza edo betekizunen bat ez duela betetzen. Halaber, ondoriorik gabe geratuko dira haren jarduera guztiak, eta izendapena egiteko izan ditzaketen eskubide guztiak galduko dituzte, eskabidean faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe. Kasu horietan, Epaimahaiak hautaketa-prozesutik kanpo uztea eta ordezkatzea erabakiko du, dagokion sailkapen-ordenaren lehentasun-hurrenkerari jarraituz, aipatutako bazterketaren ondorioz, eta horretarako eskatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.

*Hamalaugarrena. Praktiketako funtzionarioak izendatzea.*

1. Hautatutako pertsonek deialdiaren baldintzak betetzen dituztela behar bezala egiaztatzen dutenean, destinoko udaleko Alkateak praktiketako funtzionario izendatuko ditu, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluan aurreikusitako moduan argitaratuko dira.

Praktiketako funtzionario izendatutako pertsonek egoera horretan jarraituko dute Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak eman beharreko prestakuntza-ikastaroa hasten denetik karrerako funtzionario izendatu edo hautaketa-prozesutik kanpo utzi arte.

2. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez ezarriko da prestakuntza-ikastaroaren hasiera-data.

— Verificación de datos de identidad.

— Titulaciones académicas (no universitarias y universitarias).

— Perfil lingüístico más alto (Euskera).

— Certificado de cursos: relación de cursos realizados y superados a través del IVAP (Instituto Vasco de Administración Pública).

— Permisos de conducción (DGT).

Si la documentación a presentar obra en poder del Ayuntamiento de Zumaia, no será necesario volver a presentarla, siempre que se indique la fecha y la oficina en que se entregaron y no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del proceso correspondiente.

Estas consultas se realizarán en todos los casos, salvo oposición motivada del solicitante y apreciada por el órgano responsable de la actividad de tratamiento.

La oposición a la consulta de determinados documentos deberá ir acompañada necesariamente de los mismos.

Las personas seleccionadas, con carácter previo a su nombramiento como funcionarios o funcionarias de carrera, deberán presentar la documentación relativa a los méritos y requisitos exigidos:

— Si el Tribunal Calificador no ha podido realizar la acreditación, o

— Cuando los candidatos se hayan opuesto a dicha comprobación, cuando el órgano competente haya estimado dicha oposición.

No obstante, el Tribunal Calificador podrá requerir en cualquier momento anterior al procedimiento la aportación de dicha documentación.

3. No serán nombrados/as funcionarios/as en prácticas quienes, dentro del plazo señalado en el apartado anterior o, en su caso, de su prórroga, no presenten la documentación que acredite el cumplimiento de los requisitos y condiciones exigidos para participar en la convocatoria, así como el cuadro de exclusiones médicas, siempre que se deduzca que no reúne alguna de las condiciones o requisitos exigidos. Asimismo, quedarán sin efecto todas sus actuaciones, perdiendo cuantos derechos pudieran asistirles para su nombramiento, sin perjuicio de la responsabilidad en que hubieren podido incurrir por falsedad en su solicitud. En estos casos, el Tribunal acordará la exclusión y sustitución del proceso selectivo, siguiendo el orden de prelación del orden de clasificación correspondiente, como consecuencia de la exclusión citada y previa comprobación del cumplimiento de los requisitos y condiciones exigidos para ello.

*Decimocuarta. Nombramiento de funcionarios y funcionarias en prácticas.*

1. Una vez que las personas seleccionadas acrediten suficientemente el cumplimiento de los requisitos de la convocatoria, el Alcalde o Alcaldesa del ayuntamiento de destino procederá a su nombramiento como funcionario o funcionaria en prácticas y a su publicación en la forma prevista en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Las personas nombradas funcionarias en prácticas continuarán en esta situación desde el inicio del curso de formación a impartir por la Academia Vasca de Policía y Emergencias hasta su nombramiento como funcionario o funcionaria de carrera o su exclusión del proceso selectivo.

2. La fecha de inicio del curso de formación se establecerá por Resolución de la Dirección General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias.

EK\CV GAO-I-2025-03274

*Hamabosgarrena. Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia.*

1. Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia derrigorrezkoak eta baztertzaileak izango dira, banaka kontuan hartuta, eta gainditu ezean, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira eta deialdi honetan aipatzen den Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako Oinarrizko Eskalako Agente kategorian sartzeko eskubideak galduko dituzte.

2. Prestakuntza-ikastaroa ezin izango da praktikaldiarekin batera egin, eta horietako bakoitzaren iraupena, ez eta metatuarena ere, ezin izango da 30 hilabetetik gorakoa izan.

3. Prestakuntza-ikastaroa:

a) Prestakuntza-ikastaroaren iraupena ikasturte akademiko batena izango da, nahitaezkoa eta baztertzailea, eta haren edukiak, ebaluatzeko eta gainditzeko moduak eta iraupena ikasketa-planean eta aplikatu beharreko araudian zehaztuko dira.

b) Prestakuntza-ikastaroaren kalifikazioak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Zuzendaritza Nagusiak argitaratuko ditu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

c) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak kanpoan utziko ditu prestakuntza-ikastaroa gainditzen ez duten izangaiak.

d) Ikastaroaren lehen egunean prestakuntza-ikastarora sartu ezean, automatikoki baztertuko da sartu gabeko pertsona, behar bezala egiaztatutako eta aldez aurretik eskatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Zuzendaritza Nagusiari dagokio ezinbesteko kasua detektatzea eta dagokion ebazpena hartzea.

4. Praktikaldia:

a) Prestakuntza-ikastaroa gainditzen duten pertsonek praktikaldi bat egingo dute prestakuntza integralerako zentro edo bulego egokienetan, beren jarduera-arloen arabera, eta bereziki ezagutuko dute dagokion polizia-kidegoko polizia-zerbitzuen egitura eta funtzionamendua.

b) Praktikaldia hasi aurretik, EAEko Poliziaren eta Larrialdietako Zerbitzuen Ikastegiko Zuzendaritza Nagusiak ebazpena emango du, praktikaldiaren iraupena, balioespen-sistemak eta -prozedurak, praktikaldiaren destinoak eta praktikaldien hasiera-data ezartzeko. Ebazpen hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluan aurreikusitako moduan argitaratuko da.

c) Praktikaldiko kalifikazioak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak jakinaraziko ditu, indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintzetan.

d) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak praktikaldia gainditzen ez duten pertsonak kanpoan utziko ditu.

*Hamaseigarrena. Hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapena eta karrerako funtzionarioak izendatzea.*

1. Praktikaldia amaitu eta hurrengo bi hilabeteetan, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak proposatuta, destinoko udaleko alkateak karrerako funtzionario izendatuko ditu hautaketa-prozesua gainditu dutenak.

2. Izendatutako izangaiek hamar egun balioduneko epea izango dute lanpostuaz jabetzeko, izendapena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Horrela egiten ez badute, ezinbesteko kasuetan izan ezik, haien jarduera guztiak ondoriorik gabe geratuko dira, eta karrerako funtzionario izateko izan ditzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

*Decimoquinta. Curso de formación y periodo de prácticas.*

1. El curso de formación y el período de prácticas tendrán carácter obligatorio y eliminatorio, individualmente considerado, y su no superación supondrá la exclusión del proceso selectivo y la pérdida de los derechos de ingreso en la categoría de Agente de la Escala Básica de los Cuerpos de Policía del País Vasco a que se refiere la presente convocatoria.

2. El curso de formación no podrá simultanearse con el período de prácticas, sin que la duración de cada uno de ellos, ni la acumulada, pueda exceder de 30 meses.

3. Curso de formación:

a) La duración del curso de formación será de un curso académico, de carácter obligatorio y eliminatorio, cuyos contenidos, formas de evaluación y superación y duración se determinarán en el plan de estudios y en la normativa aplicable.

b) Las calificaciones del curso de formación serán publicadas por la Dirección General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias en los términos previstos en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

c) La Dirección General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias excluirá a las personas aspirantes que no superen el curso de formación.

d) La no incorporación al curso de formación el primer día del curso supondrá la exclusión automática de la persona no incorporada, salvo fuerza mayor debidamente acreditada y previa solicitud. Corresponde a la Dirección General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias la detección de la fuerza mayor y la adopción de la resolución correspondiente.

4. Periodo de prácticas:

a) Las personas que superen el curso de formación realizarán un periodo de prácticas en los centros o dependencias de formación integral más adecuados en función de sus áreas de actuación, con especial conocimiento de la estructura y funcionamiento de los servicios policiales del cuerpo policial correspondiente.

b) Con carácter previo al inicio del periodo de prácticas, la Dirección General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias dictará resolución en la que se determinará la duración, los sistemas y procedimientos de valoración, los destinos y la fecha de inicio de las prácticas. Dicha resolución se publicará en la forma prevista en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

c) Las calificaciones en prácticas serán comunicadas por la Dirección General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias en los términos previstos en la normativa vigente.

d) La Dirección General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias excluirá a las personas que no superen el periodo de prácticas.

*Decimosexta. Clasificación definitiva del proceso selectivo y nombramiento de funcionarios y funcionarias de carrera.*

1. Dentro de los dos meses siguientes a la finalización del periodo de prácticas, y a propuesta de la Dirección General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, el Alcalde o Alcaldesa del ayuntamiento de destino nombrará funcionarios o funcionarias de carrera a quienes hayan superado el proceso selectivo.

2. Las personas aspirantes nombradas deberán tomar posesión en el plazo de diez días hábiles contados desde el siguiente al de la publicación de su nombramiento en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. De no hacerlo así, salvo en los casos de fuerza mayor, quedarán sin efecto todas sus actuaciones, perdiendo todos los derechos para el acceso a la condición de funcionario o funcionaria de carrera.

EK\CV GAO-I-2025-03274

*Hamazazpigarrena. Praktiketako funtzionarioen araubide juridikoa.*

1. Praktiketako funtzionario gisa, dagokion administrazioaren aldetik, sartu nahi duten kategoriako sailkapen-taldeari dagozkion soldataren eta aparteko ordainsarien baliokidea den ordainsaria jasoko dute, eta, praktikak lanpostu batean egiten badira, lanpostu horri esleitutako ordainsari osagarrietan gehituko da.

2. Praktiketako funtzionarioei EAEko Poliziaren eta Larrialdietako Zerbitzuen Ikastegiko barnetegiaren araudia aplikatuko zaie, bai eta Barne Araudia ere, prestakuntza-ikastaroan eta praktikaldian.

Era berean, diziplina-araubidearen kasuetan, gertakari hori irakaskuntza-falta soila ez denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoen diziplina-erregimeneko arauak aplikatuko dira modu osagarrian.

3. Prestakuntza-ikastaroa edo praktikaldia ez gainditzea, edo gaitasunik eza adieraztea, bai eta zehapen bat ezartzea ere, oinarri honen aurreko paragrafoan aipatzen diren arauen arabera larritzat edo oso larritzat tipifikatutako arau-hauste bat egiteagatik, hautaketa-prozesutik automatikoki baztertzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Oinarrizko Eskalako agente kategorian sartzeko prozesutik eratorritako eskubide guztiak galtzeko arrazoi espezifikoak dira.

Era berean, prestakuntza-ikastaroari aplika dakizkiokeen ebaluazio-irizpideekin bat etorriz, ikasketa-planean jasotako gaien ebaluazio partzialetik ondorioztatzen bada ezinezkoa dela prestakuntza-ikastaroa gainditzea, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Zuzendaritzak hura baztertzea proposatu ahal izango dio praktiketako funtzionario izendatu duen organoari, praktiketako funtzionarioari entzun ondoren.

4. Prestakuntza-ikastarora ikasketa-planean aurreikusitako gehieneko denbora baino gehiagoz ez bertaratzeak hautaketa-prozesutik automatikoki baztertzea ekarriko du, Barne Araudiaren arabera ezinbesteko kasuetan izan ezik.

5. Prestakuntza-ikastarorik ez izatea dakarren edozein baimen edo lizentzia eskaera Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian aurkeztu beharko da, eta aldez aurretik Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Prestakuntza Ataleko Udaltzaingo arloko burutzak baimendu beharko du, kasuan kasuko udal-araudiarekin bat etorriz. Zerbitzuaren premien arabera lizentziak edo baimenak hartzeko, nahitaezko irakaskuntza-jarduera programatuta dagoela ulertuko da.

6. Hamabosgarren oinarriko 4.b) idatz-zatian aipatzen den ebazpenean ezarritakoa baino epe luzeagoan praktiketara joaten ez bada, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da automatikoki, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

7. EAEko Poliziaren eta Larrialdietako Zerbitzuen Ikastegiko Zuzendaritza Nagusiak, ezinbesteko kasua ikusita, praktiketako funtzionarioaren izendapena egin duen organoari proposatu ahal izango dio eragindako pertsonak ikasturte osoa errepikatu ahal izatea egiten den hurrengo ekitaldietan, edo praktikaldi osoa errepikatu ahal izatea edo praktikaldia osatu ahal izatea, ezinbesteko egoerak desagertu ondoren, betiere hala eskatzen badu.

8. Prestakuntza-ikastaroaren edo praktikaldiaren kalifikazioa eten egingo da ikastaroa eragin duten arrazoietako bat gertatzen bada, harik eta hasitako baztertze-espedientea ebatzi arte.

9. Prestakuntza-ikastaroan edo praktikaldian hautaketa-prozesutik kanpo geratu diren pertsonek armak, dokumentazioa eta hornitutako ekipo mota guztiak itzuliko dituzte.

*Hamazortzigarrena. Bazterketa medikoen taula.*

1. Destinoko udalak, hautaketa-prozesuko edozein unetan, egiaztatu ahal izango du izangaia ez dagoela azaroaren 22ko 142/2022 Dekretuan agertzen den bazterketa medikoen

*Decimoséptima. Régimen jurídico del personal funcionario en prácticas.*

1. Como funcionarios en prácticas percibirán, por parte de la Admnitración correspondiente, una retribución equivalente al salario y las pagas extraordinarias correspondientes al grupo de clasificación de la categoría a la que pretendan acceder y, si las prácticas se realizan en un puesto de trabajo, se incrementará en las retribuciones complementarias asignadas a dicho puesto.

2. Al personal funcionario en prácticas le será de aplicación la normativa del centro de internamiento de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, así como el Reglamento de Régimen Interior durante el curso de formación y el período de prácticas.

Asimismo, en los supuestos de régimen disciplinario, cuando el hecho no constituya mera falta de docencia, se aplicarán supletoriamente las normas de régimen disciplinario de los Cuerpos de Policía del País Vasco.

3. La no superación del curso de formación o del período de prácticas, así como la declaración de incapacidad y la imposición de una sanción, son causas específicas de exclusión automática del proceso selectivo y de pérdida de todos los derechos derivados del proceso de ingreso en la categoría de agente de la Escala Básica de la Policía del País Vasco, por la comisión de una infracción tipificada como grave o muy grave de acuerdo con las normas a que se refiere el apartado anterior de esta base.

Asimismo, de acuerdo con los criterios de evaluación aplicables al curso de formación, si de la evaluación parcial de las materias recogidas en el plan de estudios se dedujera la imposibilidad de superar el curso de formación, la Dirección de la Academia Vasca de Policía y Emergencias podrá proponer su exclusión al órgano que haya sido nombrado/a funcionario/a en prácticas, previa audiencia del o la funcionario en prácticas.

4. La falta de asistencia al curso de formación por un tiempo superior al máximo previsto en el plan de estudios será causa de exclusión automática del proceso selectivo, salvo fuerza mayor según el Reglamento de Régimen Interior.

5. Cualquier permiso o licencia que suponga la ausencia de cursos de formación deberá ser presentado en la Academia Vasca de Policía y Emergencias y deberá ser previamente autorizado por la Jefatura de Área de la Policía Local de la Sección de Formación de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, de acuerdo con la normativa municipal correspondiente. Para el disfrute de licencias o permisos de acuerdo con las necesidades del servicio, se entenderá programada la actividad docente obligatoria.

6. La no asistencia a las prácticas por un periodo superior al establecido en la resolución a que se refiere la base decimoquinta, apartado 4.b), supondrá la exclusión automática del proceso selectivo, salvo causa de fuerza mayor.

7. La Dirección General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, a la vista de la causa de fuerza mayor, podrá proponer al órgano que haya efectuado el nombramiento como funcionario o funcionaria en prácticas que la persona afectada pueda repetir el curso escolar completo en los sucesivos ejercicios que se realicen, o bien repetir todo el período de prácticas o completar el mismo una vez desaparecidas las circunstancias de fuerza mayor, si así lo solicita.

8. La calificación del curso de formación o del periodo de prácticas quedará en suspenso cuando concurra alguna de las causas que lo han motivado, hasta que se resuelva el expediente de exclusión iniciado.

9. Las personas excluidas del proceso selectivo en el curso de formación o en el período de prácticas devolverán las armas, la documentación y todo tipo de equipos suministrados.

*Decimoctava. Cuadro de exclusiones médicas.*

1. El Ayuntamiento de destino podrá comprobar, en cualquier momento del proceso selectivo, que la persona candidata no está incluida en el cuadro de exclusiones médicas que figura

EK\CV GAO-I-2025-03274

taulan sartuta (2.1.e oinarria) (142/2022 Dekretua, azaroaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautapen eta Prestakuntza Araudia onartzen duen Dekretua laugarrenez aldatzen duena).

2. Horri kalterik egin gabe, prestakuntza-ikastaroan eta praktikaldian edo praktikaldia amaitzean, praktiketako funtzionario izendatutakoei proba medikoak egin ahal izango zaizkie, azaroaren 22ko 142/2022 Dekretuan ezarritako bazterketa medikoen taulara egokitzen diren egiaztatzeko (142/2022 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza Erregelamendua onartzen duen Dekretua laugarrenez aldatzen duena).

3. Oinarri honetan aurreikusitako mediku-epaimahaiari seigarren oinarriko 2.2 eta 2.7 paragrafoetan jasotako arauak aplikatuko zaizkio.

*Hemeretzigarrena. Aldi baterako lan-poltsak.*

Hautaketa-prozesu honen emaitzatik parte hartzen duten udal-administrazioak adina lan-poltsa sortuko dira, oposizio-faseko probak gainditu eta lanpostuaz jabetu ez diren hautagaiekin. Lan-poltsa bakoitza dagokion udalerriko aldi baterako udaltzaingo-beharrak betetzeko erabiliko da, eta dagokion administrazioan unean-unean indarrean dagoen araudiaren arabera kudeatuko da, hurrengo paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Lan-poltsa horiek eskatzen duten erakunde publikoen esku jarri ahal izango da, baldin eta hautagaiek aldez aurretik baimena eman badute eskabide-orrian.

Lan-poltsen indarraldia hiru urtekoa izango da, onartzen direnetik, eta urtero luzatuko dira automatikoki, denbora-mugarik gabe, udalerri bakoitzeko Alkate-udalburuak kontrakorik ebatzi ezean.

Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 59. artikulua aplikatuz, eta lege horren 40.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, hautaketa-prozesua gainditzen duten hautagaiek Polizia eta Larrialdietako Ikastegiak programatutako prestakuntza burutu eta gainditu beharko dute.

Ildo horretan, hautaketa-prozesua deitzen duten hiru udalek erakunde autonomo horri eskatuko diote hautagaiak sar ditzala akademiak programatutako ikastaroetan.

*Hogeigarrena. Elkarreragingarritasun administratiboa.*

Bigarren oinarriko 1.b), c), d), f) eta j) apartatuetan ezarritako betekizunak egiaztatzeko, bai eta eskatutako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ere, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoarekin bat eginda, parte-hartzaileek kontrakorik adierazi ezean baimena ematen diote Zumaiako Udaleko, ofizioz, dagozkien egiaztagiriak eskatzeko.

*Hogeita batgarrena. Argitalpenak.*

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki-taula bat ezarriko da Zumaiako Udalaren Erregistroan, hautaketa-prozesuak osatzen dituzten egintzen ondoriozko argitalpenak jakinarazteko. Era berean, Zumaiako Udalaren webgunean oinarriei, deialdiari eta, oro har, epaimahaiaren jarduera eta ebazpenei buruzko informazioa eskuratu ahal izango da (www.zumaia.eus). Aipatutako bitartekoen bidez ematen den informazioak ez ditu inola ere ordezkatuko indarrean dagoen legeriak ezarritako komunikazioak eta argitalpenak, aldizkari ofizialen eta Udaletako iragarki-taulen bidez.

Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldiei dagozkien administrazio-egintzak indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera argitaratuko dira.

en el Decreto 142/2022, de 22 de noviembre, de cuarta modificación del Decreto por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco (base 2.1.e).

2. Sin perjuicio de lo anterior, en el curso de formación y durante el período de prácticas o a la finalización de este, las personas nombradas funcionarias en prácticas podrán ser sometidas a pruebas médicas que acrediten su adecuación al cuadro de exclusiones médicas establecido en el Decreto 142/2022, de 22 de noviembre, de cuarta modificación del Decreto por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco.

3. Al tribunal médico previsto en esta base le serán de aplicación las reglas contenidas en los apartados 2.2 y 2.7 de la base sexta.

*Decimonovena. Bolsas de trabajo temporal.*

Como resultado de este proceso selectivo se crearán tantas bolsas de trabajo como Administraciones Municipales participen, con aspirantes que hayan superado las pruebas de la fase de oposición y que no hayan tomado posesión. Cada bolsa de trabajo se destinará a la cobertura de necesidades temporales de policía local de su municipio y se gestionará de acuerdo con la normativa vigente en cada momento en la administración correspondiente, sin perjuicio de lo establecido en el párrafo siguiente.

Estas bolsas de trabajo podrán ser puestas a disposición de los organismos públicos que lo soliciten, previa autorización de las personas aspirantes el impreso de solicitud.

La vigencia de las bolsas de trabajo será de tres años desde su aprobación, prorrogándose automáticamente por periodos anuales, sin límite de tiempo, salvo resolución en contrario del Alcalde-Presidente o Alcaldesa-Presidenta de cada municipio.

En aplicación del artículo 59 del Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco, y de conformidad con lo establecido en el artículo 40.2 de la citada Ley, los aspirantes que superen el proceso selectivo deberán completar y superar la formación programada por la Academia Vasca de Policía y Emergencias.

En este sentido, los tres ayuntamientos que convocan el proceso selectivo solicitarán a este organismo autónomo la incorporación de candidatos y candidatas a los cursos programados por la academia.

*Vigésima. Interoperabilidad administrativa.*

Para la acreditación de los requisitos establecidos en los apartados 1.b), c), d), f) y j) de la base segunda, así como de los perfiles lingüísticos exigidos, y de conformidad con la Ley Orgánica 3/2018, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, las personas participantes autorizan de oficio al Ayuntamiento de Zumaia a solicitar las acreditaciones correspondientes, salvo manifestación en contrario.

*Vigesimoprimera. Publicaciones.*

De conformidad con lo establecido en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, se establece un tablón de anuncios en el Registro del Ayuntamiento de Zumaia para la notificación de las publicaciones derivadas de los actos que componen los procesos selectivos. Asimismo, en la página web del Ayuntamiento de Zumaia se podrá obtener información de las bases, de la convocatoria y, en general, de las actuaciones y resoluciones del jurado (www.zumaia.eus). La información que se facilite a través de los citados medios no sustituirá en ningún caso a las comunicaciones y publicaciones establecidas en la legislación vigente, a través de los boletines oficiales y tablones de anuncios de los Ayuntamientos.

El curso de formación y los actos administrativos correspondientes al periodo de prácticas se publicarán de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

EK\CV GAO-I-2025-03274

Nolanahi ere, oposizio- eta lehiaketa-faseak amaitu arteko argitalpen guztiak Zumaiako Udalak egingo ditu eta horiek izango dira, epeen zenbaketarako, kontuan hartuko direnak. Getariako nahiz Azpeitiko Udalek egin ahal dituzten argitalpenak ez dira kontuan hartuko aipatu zenbaketetan.

*Hogeita bigarrena. Hizkuntza-interpretaziotik erator daitezkeen gatazkak argitzeko klausula.*

Testu honen jatorrizkoa euskaraz idatzia dela kontuan izanik, hori hartuko da aintzat euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen artean interpretazio-auzirik sortuz gero.

*Hogeita hirugarrena. Errekurtsoak.*

Deialdi hau, haren arau erregulatzaileak eta deialdiaren beraren eta epaimahaiaren jardunaren ondoriozko administrazio-egintzak aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko Legean aurreikusitako kasuetan eta moduan.

I. ERANSKINA

GAITEGIA

I. Legeak hala agindutako gaitegi orokorra.

1. 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioa. Eskubideak eta askatasunak: Oinarrizko eskubide eta betebeharrak. 10.2 artikulua.

II. Gaitegi orokorra.

2. Euskadiko Autonomia Estatutua, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa. Atariko titulua.
3. 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: herritarrek administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubide orokorrak. Administrazio-erregistroak.
4. Administrazio-zuzenbidearen iturriak: legea: kontzeptua eta motak. Erregelamendua: erregelamenduak egiteko ahalaren titulartasuna eta mugak. Arauen hierarkia. Legezkotasun-printzipioa administrazio publikoan.
5. 39/2015 Legea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: Administrazio-egintza: Alderdi orokorrak. Eraginkortasuna. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Administrazio-isiltasuna. Interesdunak. Administrazio-prozeduraren faseak. Egintzak berrikustea.
6. Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituena. Udalerria: lurraldea eta biztanleria. Antolaketa. Eskumenak. Araubide bereziak.
7. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Administrazio publikoetako organoak: administrazio-organoak eta eskumena. Administrazio publikoetako kide anitzeko organoak: funtzionamendua. Abstentzioa eta errekusazioa.
8. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituena. Ondasunen kontzeptua, toki-erakundeen ondarea. Sailkapena. Araubide juridikoa. Toki-ogasunak: diru-sarreren sailkapena.

III. Gai espezifikoak.

9. Giza eskubideak: giza eskubideen alderdi orokorrak. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Giza Eskubideak Babesteko Europako Sistema.

En todo caso, todas las publicaciones hasta la finalización de las fases de oposición y concurso serán realizadas por el Ayuntamiento de Zumaia, que a efectos de cómputo de plazos serán las que se tengan en cuenta. Las publicaciones que puedan realizar los Ayuntamientos de Getaria y Azpeitia no se tendrán en cuenta en dichos cómputos.

*Vigesimosegunda. Cláusula aclaratoria de los conflictos derivados de la interpretación lingüística.*

Teniendo en cuenta que el original de este texto es redactado en euskera, se tendrá en cuenta esta circunstancia en el caso de que surjan dudas interpretativas entre las versiones en euskera y castellano.

*Vigesimotercera. Recursos.*

La presente convocatoria, sus normas reguladoras y los actos administrativos que se deriven de ella y de la actuación del Tribunal, podrán ser impugnados por las personas interesadas en los casos y en la forma previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en la Ley de 13 de julio de 1998, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

ANEXO I

TEMARIO

I. Temario general exigido por Ley.

1. La Constitución Española de 27 de diciembre de 1978. Derechos y libertades: Derechos y deberes fundamentales. Artículo 10.2.

II. Temario general.

2. Estatuto de Autonomía del País Vasco, Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre. Título Preliminar.
3. Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas: derechos generales de la ciudadanía en sus relaciones con la Administración. Registros administrativos.
4. Fuentes del derecho administrativo: la ley: concepto y clases. Reglamento: titularidad y límites de la potestad reglamentaria. Jerarquía normativa. Principio de legalidad en la Administración Pública.
5. La Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas: El acto administrativo: Aspectos generales. Eficacia. Nulidad y anulabilidad. Silencio administrativo. Interesados. Fases del procedimiento administrativo. Revisión de actos.
6. Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local. El municipio: territorio y población. Organización. Competencias. Regímenes especiales.
7. Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. Órganos de las Administraciones Públicas: órganos administrativos y competencia. Órganos colegiados de las administraciones públicas: funcionamiento. Abstención y recusación.
8. Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local. Concepto de bienes, patrimonio de las entidades locales. Clasificación. Régimen jurídico. Haciendas locales: clasificación de ingresos.

III. Materias específicas.

9. Los derechos humanos: aspectos generales de los derechos humanos. Declaración Universal de los Derechos Humanos. Sistema Europeo de Protección de los Derechos Humanos.

EK\CV GAO-I-2025-03274

10. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena: arauaren xedea eta helburua. Printzipio orokorrak. Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak.
11. 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzkoa: IV. titulua. Laguntza espezializatu eta irisgarria izateko eskubidea.
12. 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasuna erabat bermatzekoa: V. titulua. Segurtasun-indar eta -kidegoen jarduera.
13. 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzkoa: VI. titulua. I. kapitulua. Delitua egiaztatzeko funtsezko jardunak.
14. Genero-ikuspegia udaltzaingoaren eginkizunetan.
15. Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea: Polizia-jarduera kontrolatzeko mekanismoak.
16. Euskal Herriko Polizia Kidegoen Diziplina Araubidearen Araudia onartzen duen maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretua: Diziplina-prozedurak: 24tik 62ra bitarteko artikuluak.
17. Polizia-bitartekaritza I: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legea: Eskumenak (25. artikulua). 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena (55.1.i artikulua).
18. Polizia-bitartekaritza II: Bitartekaritza motak. Bitartekaritza-ereduak. Bitartekotzaren faseak.
19. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaraua, 2012ko urriaren 25ekoa, delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituena eta Kontseiluaren 2001/220/JAI Esparru Erabakia ordezten duena: 12. artikulua. Bermeak izateko eskubidea justizia konpontzaileko zerbitzuen testuinguruan.
20. 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena: (15. artikulua) Justizia leheneratzaileko zerbitzuak.
21. Euskadiko Justizia Errestauratiboaren Zerbitzurako Erakundearteko Koordinazio Protokoloa.
22. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa. Xedapen orokorrak. Zehatzeko ahalaren printzipioak. Herri-administrazioen ondare-erantzukizuna.
23. Zigor Kodearen (ZK) Atariko Titulua. Berme penalak eta Lege Penalaren aplikazioa.
24. Delituak (ZKren 10. artikulutik 18.era).
25. Erantzukizun kriminaletik salbuesten duten kausak (ZKren 19. eta 20. artikuluak).
26. Erantzukizun kriminala arintzen duten inguruabarrak (ZKren 21. artikulua).
27. Erantzukizun kriminala larriagotzen duten inguruabarrak (ZKren 22. artikulua).
28. Delituen erantzukizun kriminala duten pertsonak (ZKren 27. artikulutik 30.era).
29. Lesioak. Askatasunaren aurkako delituak. Torturak eta osotasun moralaren aurkako beste delitu batzuk. Sexu-askatasunaren aurkako delituak. Sorospen-eginbeharra ez betetzea.
30. Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkako delituak.
31. Bide-segurtasunaren aurkako delituak.

10. Objeto y finalidad de la norma: Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y para vidas libres de violencia machista contra las mujeres. Principios generales. Medidas para promover la igualdad en la normativa y actividad administrativa.
11. Ley Orgánica 10/2022, de 6 de septiembre, de garantía integral de la libertad sexual: título IV. Derecho a una asistencia especializada y accesible.
12. Ley Orgánica 10/2022, de 6 de septiembre, de garantía plena de la libertad sexual: título V. Actuación de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad.
13. Ley Orgánica 10/2022, de 6 de septiembre, de Garantía Integral de la Libertad Sexual: Título VI. Capítulo I. Actuaciones esenciales para la comprobación del delito.
14. Perspectiva de género en las funciones de la policía local.
15. Ley de Policía del País Vasco: Mecanismos de control de la actividad policial.
16. Decreto 170/1994, de 3 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de Régimen Disciplinario de los Cuerpos de Policía del País Vasco: Procedimientos disciplinarios: artículos 24 a 62.
17. Mediación policial I: Ley 7/85 de Bases de Régimen Local: Competencias (art. 25). Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco (artículo 55.1.i).
18. Mediación policial II: Tipos de mediación. Modelos de mediación. Fases de la mediación.
19. Artículo 12 de la Directiva 2012/29/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 25 de octubre de 2012, por la que se establecen normas mínimas sobre los derechos, el apoyo y la protección de las víctimas de delitos y por la que se sustituye la Decisión marco 2001/220/JAI del Consejo. Derecho a garantías en el contexto de los servicios de justicia restaurativa.
20. Ley 4/2015, de 27 de abril, del Estatuto de la víctima del delito: (artículo 15) Servicios de justicia restaurativa.
21. Protocolo de Coordinación Interinstitucional para el Servicio de Justicia Restaurativa de Euskadi.
22. Régimen Jurídico del Sector Público. Disposiciones generales. Principios de la potestad sancionadora. Responsabilidad patrimonial de las Administraciones Públicas.
23. Título Preliminar del Código Penal (CP). Garantías penales y aplicación de la Ley Penal.
24. Delitos (artículos 10 a 18 CP).
25. Causas de exención de responsabilidad criminal (arts. 19 y 20 CP).
26. Circunstancias atenuantes de la responsabilidad criminal (art. 21 CP).
27. Circunstancias que agravan la responsabilidad criminal (art. 22 CP).
28. Personas criminalmente responsables de los delitos (arts. 27 a 30 CP).
29. Lesiones. Delitos contra la libertad. Torturas y otros delitos contra la integridad moral. Delitos contra la libertad sexual. Omisión del deber de socorro.
30. Delitos contra el patrimonio y el orden socioeconómico.
31. Delitos contra la seguridad vial.

EK\CV GAO-I-2025-03274

32. Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra: aplikazio-eremua (atariko titulua): I. 970/2020 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatzen baitira hiri-neurrien arloko Zirkulazio Erregelamendu Orokorra (azaroaren 33ko 1428/2003 Errege Dekretuaren bidez onartua) eta Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra (abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartua).
33. Bide Segurtasunari buruzko Legea: I. eranskina. Oinarrizko kontzeptuak, 1etik 9ra, 12tik 24ra eta 54tik 73ra.
34. Bide Segurtasunari buruzko Legea: Arau-hausteak (V. titulua, I. kapitulua).
35. Bide Segurtasunari buruzko Legea: Zehapenak (V. titulua, II. kapitulua).
36. Bide Segurtasunari buruzko Legea: Erantzukizuna (V. titulua, III. kapitulua).
37. Bide Segurtasunari buruzko Legea: zehapen-prozedura (V. titulua, IV. kapitulua).
38. Bide Segurtasunari buruzko Legea: Zirkulazioko jokabide-arauak (II. titulua, I. kapitulua).
39. Bide Segurtasunari buruzko Legea: puntuak galtzea dakarten arau-hausteak (II. eranskina).
40. Bide Segurtasunari buruzko Legea: gidatzeko baimenak (IV. titulua, II. kapitulua). I. 971/2020 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, Gidarien Erregelamendu Orokorra –maiatzaren 8ko 818/2009 Errege Dekretuaren bidez onartua– aldatzen duena.

II. ERANSKINA

2. ARIKETARAKO GAITEGIA: HERRIAREN EZAGUTZA

* A aukera: Zumaia.

1. Kale-izendegia.
2. Auzoak.
3 Baserriak.
4. Geografia, ibaiak eta errekak.
5. Eraikin, plaza eta monumentuak.
6. Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioko udal Ordenantza.
7. TAO sistemaren udal ordenantza.
8. Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantza.
9. Terrazen udal ordenantza.
10. Bide publikoan ibiak jartzea arautzen duen udal ordenantza.

* B aukera: Azpeitia.

1. Ertzaintza eta Azpeitiko udaltzaingoa elkarlanean aritzeko lankidetza hitzarmena.
2. Erakundeen arteko II. Protokoloa Azpeitian indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko eta koordinatzeko.
3. Ibiak arautzen dituen udal ordenantza.
4. Azpeitiko udalerrian kaleko salmenta arautzen duen ordenantzaren behin-behineko onarpena.
5. Kale-plazetan mahaitxoak eta eserlekuak jarri eta erabiltzea arautzen duen udal ordenantza.
6. Kale-izendegia.
7. Auzoak.
8. Udalaren egitura.
9. Baserriak eta herri-bideak.
10. Eraikin eta entitate aipagarriak.

32. Reglamento General de Circulación: ámbito de aplicación (título preliminar): I. Real Decreto 970/2020, de 10 de noviembre, por el que se modifican el Reglamento General de Circulación en materia de medidas urbanas, aprobado por el Real Decreto 1428/2003, de 33 de noviembre, y el Reglamento General de Vehículos, aprobado por el Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre.
33. Ley de Seguridad Vial: anexo I. Conceptos básicos del 1 al 9, del 12 al 24 y del 54 al 73.
34. Ley de Seguridad Vial: Infracciones (Título V, Capítulo I).
35. Ley de Seguridad Vial: Sanciones (Título V, Capítulo II).
36. Ley de Seguridad Vial: Responsabilidad (Título V, Capítulo III).
37. Ley de Seguridad Vial: procedimiento sancionador (Título V, Capítulo IV).
38. La Ley de Seguridad Vial: Normas de conducta en la circulación (Título II, Capítulo I).
39. Ley de Seguridad Vial: infracciones con pérdida de puntos (anexo II).
40. Ley de Seguridad Vial: permisos de conducción (Título IV, Capítulo II). I. Real Decreto 971/2020, de 10 de noviembre, por el que se modifica el Reglamento General de Conductores, aprobado por el Real Decreto 818/2009, de 8 de mayo.

ANEXO II

TEMARIO 2.º EJERCICIO: CONOCIMIENTO DEL ENTORNO

* Opción A: Zumaia.

1. Callejero.
2. Barrios.
3. Caseríos.
4. Geografía, ríos y arroyos.
5. Edificios, plazas y monumentos.
6. Ordenanza municipal de circulación peatonal y rodada.
7. Ordenanza municipal del sistema OTA.
8. Ordenanza municipal reguladora de la tenencia y protección de animales.
9. Ordenanza municipal de terrazas.
10. Ordenanza municipal reguladora de la instalación de vados en la vía pública.

* Opción B: Azpeitia.

1. Convenio de colaboración entre la Ertzaintza y la Policía Local de Azpeitia.
2. Interinstitucional II. Protocolo para la atención y coordinación de mujeres víctimas de violencia machista en Azpeitia.
3. Ordenanza municipal reguladora de los vados.
4. Aprobación provisional de la Ordenanza reguladora de la venta ambulante en el municipio de Azpeitia.
5. Ordenanza municipal reguladora de la instalación y uso de veladores y asientos en plazas de calle.
6. Callejero.
7. Barrios.
8. Estructura municipal.
9. Caseríos y caminos públicos.
10. Edificios y entidades relevantes.

EK\CV GAO-I-2025-03274

* C aukera: Getaria.

1. Kale-izendegia.
2. Auzoak.
3. Getariaren geografia eta historia.
4. Baserriak, mendi-bideak, ibaiak eta errekak.
5. Udal antolamendua.
6. Getariako eraikin, plaza eta monumentuak.
7. Ibilgailuentzako aparkalekuen udal Ordenantza (2024ko abenduaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).
8. Kaleko salmenta arautzen duen ordenantza (1996ko martxoaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).
9. Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantza (2018ko maiatzaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).
10. Getariako jabetza eta erabilera publikoko lurzoruak nola okupatu arautzen duen ordenantza (2018ko urriaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

III. ERANSKINA

GAITASUN FISIKOAREN ARIKETAK

1. Lehenengo ariketa: Bizkortasuna eta indarra neurtzeko zirkuitu lastratua.

a) Zirkuituaren deskribapena:

Zirkuituak ezaugarri hauek ditu:

Irteera-lerrotik metro batera pika bertikal bat jarriko da zoruaren gainean (160-170 cm-ko garaiera); irteera-marratik 3 metrora 3 banku suediar jarriko dira, 6 m-ko tartea hartuz; azken bankutik 2 m-ra 1 m-ko altueran jarritako listoi bat jarriko da; listoitik 3 m-ra 3 pika jarriko dira (160-170 cm-ko garaiera) lerrokatuta eta 1,5 m-ko tartearekin; azken pikatik horma-bizkarrera 3 m daude; hormaren gainean, horman kokatuta eta 3 m-ko altueran kanpai bat jarriko da. Bigarren itzulian, irteeratik metro batera dagoen pikaren atzetik igaro beharko da.

b) Probaren garapena:

Joan-etorriko zirkuitu bat bi aldiz egitean datza, ahalik eta denbora laburrenean eta 10 kiloko gainkargarekin –txaleko lastratua–. Irteera-lerroaren inguruan eta mahai baten gainean, txaleko lastratua egongo da. Izangaiak txalekoa doitu du eta irteera-lerroan jarriko da. Aztertzaileak esaten dionean aterako da. Lurraren gaineko lehen pika saihestu eta banku suediarren gainetik joatea, horiek hartzen duten tartean lurra ukitu gabe. Listoiaren parera iristen denean, azpitik pasatu beharko da bota gabe. Sigi-saga egingo du pika artetik, horma-barretara igoko da eta kanpaia jo beharko da.

Zirkuitu bera jaitsi eta kontrako norabidean egitea.

Bigarren ibilbideari ekiteko, irteera-lerrotik metro batera dagoen pikaren atzetik igaro behar da, eta joan-etorriko zirkuitu bera egin. Ibilbidea irteera-lerroa gurutzatzean amaitzen da.

Proba baliogabetzat joko da pikaren bat botatzen bada, edo listoia, edo Suediako bankuek okupatutako espazioan lurra zapaltzen bada, ibilbideren batean kanpaia jotzen ez bada edo ariketa burutzeko ezarritako baremotik kanpo amaitzen bada.

Neurketa: Proba gainditzeko hiru (3) saiakera onartuko dira guztira. Neurketa segundotan egingo da, hamarrenak zenbatu gabe.

c) Baremoa: Gai/Ez Gai. Derrigorrezkoa eta baztertzailea:

c.1) Gizonezkoak: 45 segundo edo gutxiago.

c.2) Emakumeak: 45 segundo edo gutxiago.

d) Zirkuitua:

* Opción C: Getaria.

1. Callejero.
2. Barrios.
3. Geografía e historia de Getaria.
4. Caseríos, pistas, ríos y arroyos.
5. Organización municipal.
6. Edificios, plazas y monumentos de Getaria.
7. Ordenanza municipal de aparcamientos para vehículos (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 12 de diciembre de 2024).
8. Ordenanza reguladora de la venta ambulante (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 11 de marzo de 1996).
9. Ordenanza municipal reguladora de la tenencia y protección de animales (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 15 de mayo de 2018).

10 Ordenanza reguladora de las ocupaciones de suelo de dominio y uso público de Getaria (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 4 de octubre de 2018).

ANEXO III

EJERCICIOS DE APTITUD FÍSICA

1. Primer ejercicio: Circuito lastrado para medir la rapidez y la fuerza.

a) Descripción del circuito:

El circuito tiene las siguientes características:

A 1 m de la línea de salida se colocará una pica vertical sobre el suelo (altura de 160-170 cm); a 3 m de la línea de salida se dispondrán 3 bancos suecos separados 6 m; a 2 m del último banco se colocará un listón a 1 m de altura; a 3 m del último listón se colocarán 3 picas alineadas (altura de 160-170 cm) y con una separación de 1,5 m; a 3 m del último pilar al espaldón; sobre el muro se colocará una campana situada en la pared a 3 m de altura. En la segunda vuelta deberá pasar detrás de la pica situada a un metro de la salida.

b) Desarrollo de la prueba:

Consiste en realizar dos veces un circuito de ida y vuelta, en el menor tiempo posible y con una sobrecarga de 10 kg –chaleco lastrado–. Alrededor de la línea de salida y encima de una mesa habrá chaleco lastrado. El aspirante ajusta el chaleco y se coloca en la línea de salida. Saldrá cuando el examinador le indique. Evitar la primera pica sobre la tierra e ir por encima de los bancos suecos sin tocar la tierra en el espacio que ocupan. Cuando llegue a la altura del listón, deberá pasar por debajo sin tirarlo. Hará zigzag entre las picas, ascenderá hacia el expediente y se dará a la campana.

Bajar el mismo circuito y hacerlo en sentido contrario.

El segundo recorrido se inicia tras la pica situada a un metro de la línea de salida y con el mismo circuito de circulación. El recorrido finaliza al cruzar la línea de salida.

Se considerará que la prueba es nula si se lanza alguna pica, el listón, se pisa el terreno en el espacio ocupado por los bancos suecos, no se toca la campana en algún recorrido o termina fuera del baremo establecido para la realización del ejercicio.

Medición: Se admitirán un total de tres (3) intentos de superación de la prueba. La medición se realizará en segundos, sin contar los decimales.

c) Baremo de Apto/No Apto. Obligatorio y eliminatorio:

c.1) Hombres: igual o inferior a 45 segundos.

c.2) Mujeres: igual o inferior a 45 segundos.

d) Circuito:




2. Bigarren ariketa: Bizkortasun testa.

a) Deskribapena: hautagaia irteera-posizioan jarriko da irteera-marraren atzean, hau da, lehen hesia dagoen tokian. Hesiaren ezkerretik zein eskuinetik egin ahalko da irteera, eta kasu bakoitzean bukatu beharreko ibilbidea bukatu beharko da, marrazkian adierazi bezala.

2.º ejercicio: Prueba de agilidad.

a) Descripción: la persona candidata se colocará en la posición de salida detrás de la línea de salida, es decir, donde se encuentra la primera barrera. La salida podrá realizarse tanto por la izquierda como por la derecha de la valla, finalizando en cada caso el recorrido a finalizar, tal y como se indica en el dibujo.

EK\CV GAO-I-2025-03274



**Ibilbidea, ezkerretik abiatuta**
Recorrido con salida por la izquierda




**Ibilbidea, eskuinetik abiatuta**
Recorrido con salida por la derecha

Hesiaren azpitik ______ Por debajo de la valla

Hesiaren gainetik ------ Por encima de la valla

b) Gauzatzea: aztertzaileak adierazten dionean ekingo dio hautagaiak ariketari. Bandera urrunenera joango da, hura saihestu, hesirantz jo, hesia azpitik igaro, hurrengo bandera saihestu, eta bi hesiak gainetik gainditu. Azken hesia igarotzean erregistratuko da denbora, zelula fotoelektriko batzuen bidez.

c) Neurketa: saiakera bakarra izango da. Izangaiak zirkuituko elementuren bat (hesi zein bandera) bota edo lekuz aldatzen baldin badu, edota bidez tronpatzen bada, nulutzat joko da saiakera. Kasu horretan beste aukera bat bakarrik izango du. Bi saiakera baliogabetzen dituen hautagaia baztertuta geratuko da.

d) Baremoak:

| *Gizonak* | *Puntuak* |
|---|---|
| 8''40 edo gutxiago | 30,00 |
| 8''41 - 8''57 | 27,50 |
| 8''58 - 8''79 | 25,00 |
| 8''80 - 9''05 | 22,50 |
| 9''06 - 9''37 | 20,00 |
| 9''38 - 9''79 | 18,00 |
| 9''80 - 10''26 | 16,00 |
| 10''27 - 11''05 | 15,00 |

| *Emakumeak* | *Puntuak* |
|---|---|
| 9''40 edo gutxiago | 30,00 |
| 9''41 - 9''57 | 27,50 |
| 9''58 - 9''79 | 25,00 |
| 9''80 - 10''07 | 22,50 |
| 10''08 - 10''41 | 20,00 |
| 10''42 - 10''87 | 18,00 |
| 10''88 - 11''38 | 16,00 |
| 11''39 - 12''25 | 15,00 |

3. Hirugarren ariketa: Course Navette.

a) Deskribapena: hautagaiak, marra baten atzean jarri, eta, soinu-seinale bat entzundakoan, ariketari ekingo dio. Korrika egin beharko du beste aldeko marra zapaldu arte (20 m), eta

b) Ejecución: la persona aspirante iniciará el ejercicio cuando el examinador o examinadora se lo indique. Se dirigirá a la bandera más alejada, se evitará la misma, se dirigirá hacia la valla, se pasará la valla por debajo, se evitará la bandera siguiente y se salvarán las dos vallas por encima. El tiempo se registrará al paso de la última barrera mediante unas células fotoeléctricas.

c) Medición: será un único ensayo. Si la persona aspirante arroja o desplaza algún elemento del circuito (valla o bandera), o se confunde de camino, el ensayo se considerará nulo. En este caso sólo tendrá otra opción. La persona candidata que anule dos intentos quedará excluida.

d) Baremación:

| *Hombres* | *Puntos* |
|---|---|
| 8''40 o menos | 30,00 |
| 8''41 - 8''57 | 27,50 |
| 8''58 - 8''79 | 25,00 |
| 8''80 - 9''05 | 22,50 |
| 9''06 - 9''37 | 20,00 |
| 9''38 - 9''79 | 18,00 |
| 9''80 - 10''26 | 16,00 |
| 10''27 - 11''05 | 15,00 |

| *Mujeres* | *Puntos* |
|---|---|
| 9''40 o menos | 30,00 |
| 9''41 - 9''57 | 27,50 |
| 9''58 - 9''79 | 25,00 |
| 9''80 - 10''07 | 22,50 |
| 10''08 - 10''41 | 20,00 |
| 10''42 - 10''87 | 18,00 |
| 10''88 - 11''38 | 16,00 |
| 11''39 - 12''25 | 15,00 |

3.º ejercicio: Course Navette.

a) Descripción: la persona candidata se sitúa detrás de una raya y, una vez escuchada una señal sonora, comienza el ejercicio. Deberá correr hasta pisar la línea opuesta (20 m) y es-

beste soinu-seinale bat entzun arte itxarongo du, lasterketari berriz ekiteko. Egoera hori errepikatu egingo da ariketa osoan zehar. Korrika egiteko erritmoa erregulatu egingo da, soinu bat tarte erregularretan igortzen duen audio-gailu baten bidez.

b) Neurketa: hautagairen batek marra zapaltzen ez badu audio-gailuak adierazten duen unean, soinu-seinaleak markatzen duen erritmoaren aurretik badoa, noranzkoa aldatzen badu marra zapaldu gabe, marraren gainean biratu beharrean edo bira zirkularrak egiten baditu, lehenengo abisua jasoko du. Aurreko arrazoietako bat dela-eta bigarren abisu bat jasotzen badu, ariketa amaitutzat joko da, eta osatutako azken aldian izandako balioa hartuko da kontuan.

perará a oír otra señal acústica para reanudar la carrera. Esta situación se repetirá a lo largo de todo el ejercicio. El ritmo de correr se regulará mediante un dispositivo de audio que emite un sonido a intervalos regulares.

b) Medición: si un candidato o una candidata no pisa la línea en el momento que indica el dispositivo de audio, va por delante del ritmo que marca la señal acústica, cambia de sentido sin pisar la línea en lugar de girar sobre la línea o realiza giros circulares, recibirá el primer aviso. Si recibiera un segundo aviso por alguna de las causas anteriores, se dará por finalizado el ejercicio, tomándose en consideración el valor obtenido en el último periodo completado.




c) Baremoak:

| *Gizonak* | *Puntuak* |
|---|---|
| 13 ½ | 30,00 |
| 13 | 28,00 |
| 12 ½ | 26,00 |
| 12 | 24,00 |
| 11 ½ | 22,00 |
| 11 | 20,00 |
| 10 ½ | 18,00 |
| 10 | 16,50 |
| 9 ½ | 15,00 |

| *Emakumeak* | *Puntuak* |
|---|---|
| 11 | 30,00 |
| 10 ½ | 28,00 |
| 10 | 26,00 |
| 9 ½ | 24,00 |
| 9 | 22,00 |
| 8 ½ | 20,00 |

c) Baremos:

| *Hombres* | *Puntos* |
|---|---|
| 13 ½ | 30,00 |
| 13 | 28,00 |
| 12 ½ | 26,00 |
| 12 | 24,00 |
| 11 ½ | 22,00 |
| 11 | 20,00 |
| 10 ½ | 18,00 |
| 10 | 16,50 |
| 9 ½ | 15,00 |

| *Mujeres* | *Puntos* |
|---|---|
| 11 | 30,00 |
| 10 ½ | 28,00 |
| 10 | 26,00 |
| 9 ½ | 24,00 |
| 9 | 22,00 |
| 8 ½ | 20,00 |


EK\CV GAO-I-2025-03274

| *Emakumeak* | *Puntuak* |
|---|---|
| 8 | 18,00 |
| 7 ½ | 16,50 |
| 7 | 15,00 |

4. Laugarren ariketa: Igeriketa (50 m libre).

a) Deskribapena: hautagaiak, igerilekuaren ertzean, kanpoan, zutik dagoela, uretara egingo du salto soinu-seinale bat entzundakoan, eta 50 m egingo du igerian, hau da, bi aldiz 25 m-ko luzera. Igeriketa-estiloa librea izango da. Ariketa egin ahala, estiloa aldatu ahal izango da. Ezin izango da deskantsatu oinak igerilekuko hondoan jarrita, ez eta hormari edo kortxo-ilarei helduta ere. Halaber, lehenengo luzerako bira ematerakoan, hautagaiak eskuekin horma ukitu beharko du, aztertzaileak argi ikusteko moduan. Aurreko betekizunetako bat ez betetzeak ariketatik baztertzea ekarriko du. Irteera baliogabetuz gero, ariketa eten egingo zaio hala egin duenari. Serie guztien amaieran azken serie bat egingo da irteera baliogabetu zaien guztiei. Bi irteera baliogabetzen zaion hautagaia baztertuta geratuko da.

Betaurrekoak erabiltzeko aukera egongo da. Uretako txanoa erabiltzea derrigorrezkoa izango da.

b) Baremoa:

| *Gizonak* | *Puntuak* |
|---|---|
| 30''00 edo gutxiago | 30,00 |
| 30''01 - 32''00 | 27,50 |
| 32''01 - 34''00 | 25,00 |
| 34''01 - 36''00 | 22,50 |
| 36''01 - 39''00 | 20,00 |
| 39''01 - 42''00 | 18,00 |
| 42''01 - 46''00 | 16,00 |
| 46''01 - 52''00 | 15,00 |

| *Emakumeak* | *Puntuak* |
|---|---|
| 38''00 edo gutxiago | 30,00 |
| 38''01 - 40''00 | 27,50 |
| 40''01 - 42''00 | 25,00 |
| 42''01 - 44''00 | 22,50 |
| 44''01 - 47''00 | 20,00 |
| 47''01 - 50''00 | 18,00 |
| 50''01 - 56''00 | 16,00 |
| 56''01 - 68''00 | 15,00 |

| *Mujeres* | *Puntos* |
|---|---|
| 8 | 18,00 |
| 7 ½ | 16,50 |
| 7 | 15,00 |

4.º ejercicio: Natación (50 m libres).

a) Descripción: La persona candidata se situará fuera de la piscina, en el borde, de pie, y al oír una señal acústica saltará al agua y nadará 50 m, es decir, dos veces una longitud de 25 m. El estilo de natación será libre. A medida que se vaya realizando el ejercicio se podrá ir modificando el estilo. No se podrá descansar apoyando los pies en el fondo de la piscina, ni sujetando la pared o las filas de corcho. Asimismo, al girar por la primera longitud, la persona candidata deberá tocar con las manos la pared de forma que sea claramente visible por los y las examinadores/as. El incumplimiento de alguno de los requisitos anteriores supondrá la exclusión del ejercicio. La anulación de la salida dará lugar a la interrupción del ejercicio. Al final de todas las series se realizará una última serie a todos y todas los y las que se les haya anulado la salida. La persona candidata al que se anulan dos salidas quedará excluida.

Se podrán utilizar gafas de agua. Será obligatorio el uso de gorro de agua.

b) Baremo:

| *Hombres* | *Puntos* |
|---|---|
| 30''00 o menos | 30,00 |
| 30''01 - 32''00 | 27,50 |
| 32''01 - 34''00 | 25,00 |
| 34''01 - 36''00 | 22,50 |
| 36''01 - 39''00 | 20,00 |
| 39''01 - 42''00 | 18,00 |
| 42''01 - 46''00 | 16,00 |
| 46''01 - 52''00 | 15,00 |

| *Mujeres* | *Puntos* |
|---|---|
| 38''00 o menos | 30,00 |
| 38''01 - 40''00 | 27,50 |
| 40''01 - 42''00 | 25,00 |
| 42''01 - 44''00 | 22,50 |
| 44''01 - 47''00 | 20,00 |
| 47''01 - 50''00 | 18,00 |
| 50''01 - 56''00 | 16,00 |
| 56''01 - 68''00 | 15,00 |

EK\CV GAO-I-2025-03274